

Goñerrin aurkitutako beste sei testu

FRANTZISKO ONDARRA

SARRERA

Goñerrin aurkitutako hamar testu aldizkari honetan argitara emanak ditugu¹. Orain ezagutzera ematen ditugunek horiekin eta beste anitzekin bilduma bat osatzen dute. Guztien berri labur bat ikus daiteke Euskaltzaindiaren agerkaria den *Euskera* aldizkarian².

TESTUAK

Lehenbiziko bostak predikuak dira eta seigarrena berriz Elizakoak edo “Viaticum”a hartzekoan erabiltzen ziren galde-erantzunak. Lehenengo lauak lau orrikoak dira, bostgarrena hiru orriduna eta azkenekoak orri bat du bakarrik. Zehatzako izateko, aipatu ditugun lauak paper haundi batean daude idatzirik, paper hori tolestatu eta lau orri egin ondoren. Azkeneko bi orriak moztu gabe daude goiko aldetik beroietan. Testuak guk zenbatu ditugu. Paper neurriak hauek dira: 1. testuan 213 mm. luze eta 153 zabal; 2.ean 210 eta 152; 3.ean 212 eta 149; 4.ean 212 eta 151; 5.ean 210 eta 151; eta 6.ean 208 eta 148.

Ur markak hauek dira:

1. Lehenengo sermoian bi zirkulu kontzentriko ageri dira, horien artean “OSPITAL GENERAL DE P(AMPLONA)” irakurtzen dela. Barruan leoi

1. ONDARRA, Frantzisko 1989. “Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753)”. *Fontes*, 53 (1989), 97-144; idem 1990. “Goñerrin aurkitutako lau euskal testu (XVIII. m.)”. *Fontes*, 55 (1990), 73-121.

2. ONDARRA, Francisco 1981. “Goñibarko euskara XVIII. mendeko sermoietan”. *Euskera*, XXVI (1981), 1. zb., 349-365; idem 1981. “Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpena”. *Euskera*, XXVI (1981), 2. zb., 633-649.

bat besoak gora ikusten dugu, eta leioaren buruaren parean goiko aldetik koroa bat.

2. Bostgarren testuan bi zirkulu kontzentriko ageri dira, horien artean “E(?) GOLL” irakurtzen dugula eta beste zerbait ere badagoela. Barruan bi sastakai, eta kanpoan goiko aldean koroa bat “E GOLL” hizkien parean.

3. Beste testuetan ez dugu ongi ikusten ur marka.

Zenbat. Sei dira testuak, esan dugunez, eta guk ordenatuak dira, horretarako gaia erabili dugula gidari eta oinarri.

Gaia. 1.a “Platica dela Pureza”; 2.a “Dela Muerte”; 3.a “Sermon del Juicio Particular”; 4.a animaren salbazioaz ari da; 5.a bulda sanduaz; eta 6.a Elizakoak hartzeko galde-erantzunek osatzen dute.

NOR, NON ETA NOIZ

Nor den egilea ez dakigu, eta zer den ere ez. Bere entzuleei hitz egiten dienean, honelakoak esaten ditu: “aizace Jaunec” 1,1,3; “nere Christioac” 3,3,1; “nere Adisquideac” 4,1,1; “nere Catholioac” 4,1,1; “Catholioac” 2,2,2; “Christioa” 3,3,2; “Adisquide nereac” 4, 1at., 4; “nere oyente estimatuec” 1,1,1.

Horiek irakurtzen ditugularik, pentsa daiteke fraide/misionistaren bat izan zela egilea. Gainera, 3. testuan idatzirik dagoen pasarte batek ematen du sendotzen duela uste hau. Hona hemen pasartea: “Guruce au da Misericordiesco tribunalea” 3,3,4. Predikuaren amaieran dago esaldi hori eta ekartzen digu gogora misiolarien ohitura bat, hots, sermoiaren bukaeran gurutzea eskuetan hartu eta berari eta entzuleei hitz egitekoa.

Baina, bestalde, testuen orrien artean gordetzen diren paperak ikertzen baditugu, ematen du herriko apeza edo parrokua dela autorea. Herrian berriki gertatu diren gauzak -ik, 1,3 eta 3at.- edo herrian bizi-bizirik dauden arazoak-ik. 4,3at.-. Bostgarren eta seigarrena parroku baten zerak izan behar lukete.

Non izan ziren idatziak eta emanak ere ez dakigu. Erdaraz ez zekiten entzuleendako izan zirela ikusten dugu: “Bada Jaun Divino arec errespondatuco dizu, cer, bentures nere Prediquedoreac itz eguidute *Erداراس، franceses، latines*, edo zuc *ecin comprehenditu* dezaquezun moduen?” 3, 2at., 4. Pasarte horretako *erdara* gaztelania da.

Noizkoak dira? 1. testua 1817. eta 1829. urteetan izan zela berriz emana badakigu, eta gainera autorea ez zen beste batek emana; 2.a 1827 eta 1832. urteetan izan zen berriz erabilia.

Datarekin zer ikusia izan ditzaketen zenbait pasarte eta datu, garai haientako giroa erakusten eta isladatzen dutenak, eskaintzen ditugu. Inkisizioa zutik dago oraindik *Logroñon* 3, 1at., fine. “Españeco Erreinu, eta Señorioegui, eta gure Erregueari” 5,1.an esaten du; “Infielen contra”ko gudua aipatzen da 5, 1.an; eta bertan “baquea Principe Christio gucien erteau” eta “Erregue Catholioac vielcenduen Exercitoan Infielen contra”.

Ez ditugu ahaztu nahi beste zenbait pasarte, beharbada lagungarri edo interesgarri gerta daitezkeenak. “Medicu, eta Barberari” leitzen dugu 4,3,2ean; “confesatu, eta comulguetu zaicela illen lembisico Iguendetan,

Errosarioco Cobrarien indulgenciecierebasteco, edo illen iru guerren Iguedean Santisimoaren Cobrarico indulgencie irebasteco” esaten da 3,3,2.ean; “aulfer” bizi direnez ari dela, hau dio: “Confesatu, eta comulguecen dire Bazcoetan borchas, edo beren gogoaren contra, Excomecacioac arrepatu estezoten” 4,2at.,4; eta testu honetan bertan, herriko buru edo kardunel buruz honela mintzatzen da: “erri bacochan nombratu Cargudun perpetuec, vici diren demboraco, cergatic condenatu bear baute, obeago da condenatu deicen bat, edo bi, erri bacochan, ece condenatu deicen gucieci” 4,3at. (testu barruan aurkitzen den papertxoan esaten da hori).

Pasarte horietan isladatzen den giroa kontutan harturik eta ur markarekin³ ahantzi gabe, uste dugu 18.mendeko bukaerakoak (edo 19. mendeko hasierakoak) izan daitezkeela hemen eskaintzen ditugun agiriak.

GRAMATIKA

I. Grafia eta fonetika

Bokaletan, hasierako *u*- adierazteko ez da inoiz *v*- erabiltzen; eta bokal arteko *v/b* adierazteko ez da -*u*- bokala erabiltzen. Gertakari hauek aipatzen ditugu, testuen data dugulako buruan.

Kontsonanteetan, hitz hasieran lau hitzetan ageri da *b*- kontsonantea: “*Ha!*” 1,1; “*bellegatu*” 2,2; “*bumear*” 4,1at.; eta “*burte*” 3,1at.

Ixa adierazteko -ss- bikoitza aurkitzen dugu: “*Ausse*” 4,1; “*gaissoa*” 4,1; “*isseguicea*” 1,3; “*isiñic*” 1,3. Testu eta leku horretan bertan -s- bakuna ere agertzen zaigu: “*iseguicea*” 1,3; eta “*isiñic*” 2, lat. Eta beharbada, fonema hori azaltzen da zenbait aldiz ematen diren hasierako *j/s*- kontsonanteetan: “*Jai*” 4,2 eta “*Say*” 5,1; “*jan*” 4,2 eta “*san*” 2,2; “*jocu*” 4,2at. eta “*socureco*” 4,3at.

Noizean behin ikusten dugu *ts* digrama, eta *tz* (ta *tc*) digrama maiz: “*lot-saturic*” 3,2; “*itsu*” 2,1, baina “*ichbutasune*” 3,2at.,1; “*Etsaiec*” 4,1at.,3: “*anitz*” 1,1,5; “*batzuec*” 1,1at.,4; “*etzutela*” 1,1at.,3; “*etäre*” 1,2,3.

Hitza eta horri erantsitako atzizkia lotu gabe idazten dira askotan: “*dianfano ena*” 1,1,2; “*moderatu ago*” 1,1at.,3; “*izen agatic*” 1,1at.,5; “*arrapace agatic*” 2,2at.,2; “*erioze aren*” 3,1,3.

Gutxitan laburtzen ditu hitzak grafia aldetik, besterik dela fonetika arloan. Beti laburturik *S.* “*San*” 1,1at.,5; etab.; laburturik noizean behin -*kin* atzizquia: “*poderosoareq.*” 1,2,2; eta testu hasierako latinezko esaldietan Idazteuneko liburuaren izena eta horren burua.

II. Fonetika

Bokaletan, fonetika gertakari asko aurkitzen dira.

A-i eta *a-u* gerta daiteke *e-i* eta *e-u* bilakatzea: “*beicic*” 1,1at.,3; “*apein-*

3. GARCIA SERRANO, Rafael 1974. “El Molino de Papel del Hospital General de Pamplona”. *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 16 (1974), 7-21.

ceco” 4, 2at., 3; “deudela” 2,1,1. Eta *a-i-a* ta *a-u-a* aurki daitezke *e-i-e* eta *e-u-e* bihurturik: “*beite*” 2,1; “*beiten*” 1,1at., 5; “*deuque*” 1,1,1; “*deuquete*” 1, 1at., 5.

Bestalde, ikusten da *eu* diptongoa *au* egunik: “*nauurrie*c” 4,2,2; eta *ei* diptongoa *a(i)* idatzirik: “*bañere*” ‘behin ere’ 2,1,1 (ik. “*beñere*” 2,1,1; etab.); “*zanequin*” ‘*zeinekin*’ (erlatiboa) 2, 1at., 1 (ik. “*ceñequin*” 5,1; “*ceñ*” 1,1at.,5).

Gainera, *au* diptongoa *ou* bilaka daiteke: “*goude*” ‘gaude’ 2,1at.,1; “*zoude*” ‘zaude’ 4,2,4. Baita *o* ere bihur daiteke: “*dode*” ‘daude’ 5, 1.

Ikusten denez, gertakari hauek adizkietan ugari ematen dira.

Ezin dugu ahaztu *i-a* eta *u-a* normalki *i-e* eta *u-e* egiten direla: “*eguie*” 4,1,1; “*vilecen*” 4,1,1; “*osasune*” 4,1,1; “*mundure*” 4,1,1. Hori bera gerta daiteke *i* eta *u* hitz baten azkeneko silaban badaude eta *a* hurrengo hitzaren lehenengo silaban: “*andibet*” 1,2,1; “*asqui de*” 2, 1at., 1; “*egun beteco*” 2, 2at., 2; “*aud e*” 2,1,1.

Salbuespen bakan-bakan bat bezala aurkitu ahal izan ditugu *ea* eta *oa ia* eta *ua* bihurturik: “*itia*” 1,3; “*guacen*” 1, 1at., 3, baina “*doacenean*” 4, 1at., 3.

Kontsonanteetan, ez ditugu ahantzi nai z kontsonantearen inguruari zer-tzen diren gertakariak.

Bukaeratzat -z duten atzizkietan, -s bilakaturik ageri da kontsonante hori: “*gueros*” 1,1,2; “*ontas*” 1,1,5. (Baina “*berriz*” 4,2,2.)

Hitz barruko -zk- aldatu eta -sk- egiten da: “*lembiscora*” 1, 1at., 3; “*Eguiasco*” 3,2,1. (Baina “*Bazcoa*” 3,1,1; “*bazcarie*” 1,3.)

Hori bera gertatzen da “-zt-” rekin: “*orrestaturic*” 4,2at.,3; “*zeuste*” ‘*zaudete*’ 1,3. Baita *ez + l-* edo *n-* elkartzen direnean: “*es htzeque*” 2,2,1; “*esñeiteque*” 1,1at.,3. Eta *ez + d-* ematen denean: “*-estaquit*” 1,1,1; “*estute*” 1,1,1. (Baina “*ezdezaquezule*” 3,3,2.).

Noizean behin bukaerako -n eta hasierako b- aldatu eta -m b- sortzen da: “*pasagerem bates*” 1,1,5.

III. Morfología

Deklinabideaz zerbait esan nahi dugu.

Ergatibo plurala gehienetan -ak atzizkiaz baliatuz egiten da: “*bildur de-tenac procurecen dute*” 1,1,3; *tratacean...* *Nescatoac Mutillequin*” 1,3; eta “*deuquete guizonec*” 1,1,1; “*interpretec...* *dutena*” 1,1,5.

Destinatiboaren bukaera -dako eta -tako da: “*enemigoen daco*” 2,1,1; “*guretaco*” 2,1at.,2; “*gucietaco*” 3,1,1.

Datibo plurala -egida: “*guizonegui*” 1,1,1.

Ablatibo plurala -etatik: “*itzetatic*” 1,2,3 bizigabeetan; eta -engandik bizi-dunetan bai singular eta bai pluralean: “*Divinoaren gandic*” 1, 2at.,3; “*genden gandic*” 2,1at.,3.

Soziatiboa gutxien-gutxienetan da -ki: “*Evangelicoequi*” 1,2,4.

-Tasun atzizkia. Elkanoko Lizarragak -zutu erabiltzen du “*aurzutu*” eta holakoetan; gure testuetan -tasun ageri: “*Aurtasunean*” 4,1at.,3; “*Gastetasuneco*” 4,1at.,3.

Erakusleak hauek dira: *au* 1,1,1; *onec* 3,3,4; *aubec* 2,1,1; *ori* 2,2,2; *orrec* 4,1,1; *oyec* 4,1,1; *ore* 1,2,2 eta *ure* (gutxiagotan) 3,3,4; *arec* 3,1,1 eta *arrec* (behin) 1,1,5; *ayec* 2,1,1.

Hitzak laburtu eta *pilaturik* ageri dira noizik-behin: “*naucen*” ‘nahi duzuen’ 2,1at.,3; “*beaute*” ‘behar dute’ 4,3at.; “*bambedode*” ‘baldin badaude’ 5,1.

Adizkietan ere badago esatekorik. Hasteko, pluraleko bigarren pertsona -ze da: *duze* ‘duzue’ 1,1,3; “*aizace*” 1,1,3.

Iraganaldian askotan gordetzen da bukaerako *-n* kontsonantea perpaus nagusietan: “*cioten*” 3,1,1; “*eguin zuen*” 3,2,1; “*ona cen*” 4,3,2.

Partizipioko *-i* eta *-tu* bukaerak gehienetan gordetzen dira agintaldian, ahalekoan eta subjuntiboan: “*paratu bezate*” 1,2,1; “*icusi zace*” 1,2,3; “*villetu dezagun*” 3,3,4; “*jarri gaitecen*” 3,3,4; “*aplique tudezoque*” 5,1.

IV. SINTASIA

Ergatibo marka ez dago ongi noiz-behinka, batzutan falta delarik: “*gu...* dugunean” 2,2,2; “*au estu... icen bear*” 2,2,1; eta beste batzutan sobre dagoe-larik: “*duenac, acavatuco da*” 1,1,2; “*estela..., duenac*” 1,1,1.

Genitiboa izenaren ondotik ikus daiteke: “*hermosure edificioena*” 1,1,3; “*Aytec doncellarenac*” 1,3; “*generosidadea Aite Sanduarena*” 5,1.

Erlatibozko perpausak tajutzeko, *-n* atzikiaz gainera, erabiltzen dira *nor*, *zer*, *zein* eta *eze* izenordainak eta *bai(t)-* aurritzka: “*estoquetelaric araguiric noren contra peleaceco*” 1,1,1; “*au da casoa certan arquicen zaraten*” 2,2at.,2; “*disponiceco felicidade eternora, cein iorc etzaque quendu*” 2,2at.,2; “*leio aubetatic sarcen dire manchac Animen, ece inquietacen, turbecen, eta manchacen dute*” 1,1,4; “*privilegio generosoat, concedicen baitu*” 5,1.

Genitiboa nominatiboaren ordez behin bakarrik aurkitu dugu: “Jaun di-vino onen errecibizera” 6,1,1. paragrafoa.

HIZTEGIA

Hemen ipintzen ditugun hitzak ezagunak dira, baina euskalki eta azpieuskalkien ezaugarriak mugatzeko lagungarri izan daitezkeelako ematen ditugu, fonetika eta morfologia aldetik ere interesgarri gerta daitezkeelarik.

A. *abrats* “*abratsa*” 4,1,1; *agirtu* “*aguirtuco*” 2,2,2; *alde* “*gure alde*” ‘pro nobis’ 3,1at.,2; *alketu* “*alquecen*” 1,1at.,4; *anitz/asko* “*anitz*” 1,1,1; “*asco*” 4,2,2; *arrazio* “*arracio*” 4,2at.,2; *astregun* “*astregunean*” 4,3at.; *atra* 3,1at.,2; *azendu* “*acenduric*” 3,1,2; *aurre* “*aurrean*” 1,1at.,2; *azken* “*azquen*” 1,2,2.

B. *bage* “*bague*” 4,1at.,2; *beiten* ‘*baitan*’ ‘beren beiten’ 1,1at.,5; *barkazio* “*barcacioa*” 3,3,4; *bekatari* “*becatarien*” 3,1,1; *bekoski* “*vecosquien*” 2,1at.,2; *berze* “*berce*” 4,1,2; *bezela* (sic - ze-) “*becela*” 5,1; *bide* “*leitu bideduze*” 1,1,3; *bortz* “*bortz*” 5,1.

D. *deus* 3,2,3; *doi doie* 4,2at.,4.

E. *egorri* “*egorcen*” 3,2,3; *eraman/eramo* “*eraman*” 4,1,1; “*eramo*” 1,1at.,4; *erdara* “*Erdaras*” 3,2at.,3; *erran* 2,3; *ertxi* ‘*itxi*’ “*erchi*, eta irequi ba-

tean” 2,2at.,2; *eskeros* “esqueros” 3,1,1; *eskubi* “escubico aldean” 3,1at.,3; *estalkin* “estalquin, edo alcabuete” 1,3at.; *etziñoz* “Etcíñoci, edo Justicieri” 1,3at.; *eskomekazio* “Excomecacioac” 4,2at.,4.

F. *frutu* “frutuerequin” 4,1at.,3.

G. *gaisto* 1,3at.; *gaste* “gastea” 2,2,2; *geiago/iago* (biak ugari) “gueiago” 2,1at.,1; “yago” 1,1,3; *guaze* “guace” 3,1,3; *guzi* “gucietan” 1,1,1.

I. *igen* “igueten” 1,1,1; *iguzki* “Iguzqui” 1,2,1; *ikutu/ukitu* “icucen” 1,1at.,2 eta “uquicen” 2,2at.,2; *illergi* “Illerguieren” 3,2at.,1; *ior* ‘inor’ “ior” 1,2,2; *iregi/ireki* “ireguicen” 2,1,2; “irequi” 2,2at.,2; *irugi/iruki* ‘eduki’ “iruguico” 1,1at.,3; “iruqui” 4,3at.; *Irur oguei ta amar* 3,1at.,2; *isegi/ixegi* (-x-?)/*iseki* ‘piztu, irazeki’ “iseguicea” 1,3; “issequicea” 1,3; “isequicea” 3,2at.,1; *isin/ixin* (-x-?) “piztu, irazeki” “isin dezala” 4,3,2; “isiñic” 2,2at.,1; “issiñic” 1,3; *itxe* “Iche” 4,1,3; *itxeso* “ichesoan” 2,2,1; *itz egin/minzetu* “itz eguitaea” 4,1,1; “mincecen” 2,1,1; *jaio* “jaiocen” 2,1at.,1; *Jangoiko* “Jangoico” 3,3,2; *joan/juan* (ia beti “joan”) “joan” 2,2at.,2; “juan” 1,2,1.

K. *kabi* “cabie” 4,1at.,3; *karrika* “carriquen” 1,1at.,5; *kobrerie* ‘kofradia’ “Cobrarien” 3,3,2; *kontu eman/artu* “contu ematera” 2,2at.,2; “contu arzale” 4,2at.,5; *kristio* “Christio” 3,1at.,2.

L. *langai* “ganadoac, ta langayec” 4,2at.,6 (Larramendi-k *instrumento* ‘lancaya’); *lazki* ‘oso, txit, arras’ “lazqui” 1,1,1; *lotsatu* ‘izutu’ “lotsaturic, eta izuturic” 3,2,3.

M. *maistru* “Maistru” 1,1,4; *mereji* “meregi” 2,1at.,1; *mi* 3,2,1.

N. *neskato* “Nescato” 3,3,3; *non* 2,2at.,2.

O. *oian* “Oyan” 1,3; *orai* 2,1,1; *orzi* “orcicera” 2,1,1.

S. *sandu* 1,1at.,3.

TX. *txiki* “chiqui” 4,2,4.

ADIZKIAK

Alor honetan ikus daiteke *Nor-nork* espero denean, *Nor-nori-nork* ageri dela, eta alderantziz, aurki daiteke *pluralgilea* falta dela, silaba *aferesia* gerta daiteke, *subjuntiboko* adizkiak indikatiboan erabilirik, eta besterik.

Nor-nork adierazteko *Nor-nori-nork* erabilia: *digu* ‘gaitu’ 2,1at.,1; *digute* ‘gaituzte’ 2,1at.,1; *zizu* ‘zintuen’ “Etzizu” 4,2,4.

Nor-nori-nork adierazteko *Nor-nork* erabilia: *zue* ‘zio’ “paratuzue” 1,2,5.

Pluralgilea falta da: *deukete* ‘dauzkate’ “deuquete” 4,2at.,6; *balukete* ‘baluquete’ “baluquete” 5,1 fine; *dezan* ‘ditzan’ “eraman dezala bi candela” 4,3,2.

Silaba aferesia: *tu* ‘ditu’ “intuenac” 1,2at.,3; baina *ditu* 3,2,2; *zake* ‘dezake’ “etzaque” 1,2at.,3, baina *dezake* “dezake” 1,1,1; *zaguzu* ‘iezaguzu’ “erran zaguzu” 3,3,1, baina *dezaguzu* 2,3. Ik. ere *dezogun* ‘diezaiogun’ 3,3,4; *dezokete* ‘diezaiokete’ “dezoqueten” 1,1,3.

Subjuntibokoak indikatiboan: *zeikio(n)* ‘zitzaison’ “ceiquion” 3,1,4; *zeikiote(n)* ‘zitzaien’ “ceiquiotela” 1,2,5; *zekigu(n)* ‘zitzaignun’ “cequigun” 2,1at.,2; *zekio(n)* ‘zitzaison’ “bacequion” 3,1at.,2.

Besterik Aldaketa fonetikoa daukagu adizki hauetan: *gada* ‘gara’ “gada”

2,1at.,1; “gaden” 2,1at.,1, baina *gara* 4,1,1 (*gada* askoz maizago *gara* baino); *zada* ‘*zara*’ 2,3at., baina *zara* 3,2,1 (*zara* askoz ugariago *zada* baino); *dende* ‘*daude*’ 2,1,1, eta *dode* ‘*daude*’ “bambedode” 5,1; *zonde* ‘*zaude*’ 2,3at.; *zode(n)* ‘*zeuden*’ 5,1; *zaiste/zeiste* ‘*zaitezte*’ *zaiste* 3,1at.,2; *ceiste* 2,2,1, baina *zaitesten* 4,2,2 (behin bakarrik guk hartua); *zeuste* ‘*zaudete*’ 4,2,2. Morfologia arazoa dugu, *nor* marka errepikatzen delarik, *nazadaten* ‘*nazaten*’ 1,1at.,4 adizkian. Eta abar.

GURE LANA

Honen antzeko beste lanetan bezala, saiatzen gara testuak dauden moduan ematen, ezertxo ere aldatu gabe. Eta luzeegia gerta ez zedin ez dugu ematen hiztegi osoa, ez eta ere adizki guztiak.

Berriz ere esango dugu, hemen ipintzen duguna ez dugu egia eta fedetzat jotzen. Testuak ezagutzen edo argitaratzen ematea da gure ardura nagusia eta lehenengo hurbilpen bat testuei, bestek besterik eta gehiago eta astiroago idatz ahal dezan.

Testuei buruz esan behar dugu erdal hitzak galgarik gabe sartzen dituela eta ez diola ubarkerik jartzen horien uhaldeari. Lehenbiziko lekuaren ezartzen dugunak euskara eskas eta txarra eskaintzen du, hurrengoetan gure ustez gero eta hobeto idazten duela predikariak joskera aldetik.

Nafarroako euskara dela baiezta daitake dudarik gabe. Ukitu ditugun puntu asko eta eman ditugun adibide anitz ideia hori buru eta gogoan zebil-kigula zertuak izan dira.

TESTUAK

1. Testua

*Platica dela Pureza*¹

Qui amat periculum peribit in illo. Sap(ientiae).

Sacrificio gucietan agradablena Magestade Divinoari da incomparable gustotacoa Ainguiruen pureza, bere dificultadeac itendu bere meritoa, eta estute acertacen aplaudicera asqui sanduec, ponderatu zutelaric lenago, ece impureza dela becatu lazqui aborreciblea Jangoicoari, eta lotsagarrie guizonegui: icusico dugu ordu ontan medioac, preciso direnac apliquecea, conservaceco castidadea, eta pureza: Da aīñ andie virtute au, ece estaquit expliquecen bere alteza; bañe esta anitz, ece edoceiñ guizon arquitu dayen atajaturic bere elogioan, deicen duenean inestimablea Espiritu Divinoac: *inestimabilis*² *honestas illius*: deueque dificultadea, norc uquetu dezaque? Da

1. Goi aldeko ezkerreko zokoan 1817 eta 1829. Titulu ondoko latinezko esaldia *Liber Ecclesiastici* 3, 27. capitulu eta paragrafoan dago.

2. Latinezkoetan zenbait oker aurkitu ditugu. Hemen “*inestimabilis*” dio “*inæstimabilis*” esan beharrean; gero “*aparuit*” 2,1 “*apparuit*”en ordez, eta “*occultis*” 2at.,4 “*occultis*”en partez.

lazqui ciertoa; bañe bere dificultadearen comparacioan da bere meritoa. Pureza erratendu³ S(a)n Agustiñ, eta S(a)n Ambrosioc igueten dela naturaleza humano condicioaren gañera, reprimicendu bere revelionea, eta dominacendu gucie bera: Erranzuen lenago S(a)n Pabloc, ece virgin batec dominacen zuelaric araguiaren impetuec, elevacen cela Jangoicoari gucie bere pensamentuetan, eta ce Santa Gorputcean, eta Animen: S(a)n Ambrosioc añadicendu, estela humanoa, guardacen duenac pureza, estela guizona, estela andrea, cergatic beite aiñguiruet. Oraño Ainguiruec⁴ icusten dire materie ontan exedituric guizonen virtute onen gatic, cergatic estoquetelaric araguiric noren contra peleaceco glorian, deuquete guizonec peleacen dutenac lurrean.

Bañe virtute au da aiñ deliquetue, ece estela engañañacen⁵ aiñ pronto cristale diafano ena, nola ciquincenden virtute hermosau; virtute ontan icen beardugu Armiñoac bezela, ceñen erresplandoreas erratenda: *malo mori, quam foedari*: lenago arriesgatuco dut vicie, ece exponitu mancha ligeroarenari: gueros peligro guciec evitetu beardugu⁶: bada errancigu Salvadoreac, ece peligroa amacen duenac⁷, acavatuco da peligroan: edo cergatic beti paracendena peligroan, erorcenda realidadean, edo cergatic sollic peligroa da erorcea.

Bañe asunto ontan, cer erranendut, nere oyente estimetuec, zuec estaquicena: Nor icenenda, estagona instruituric inumerable peligrotan, deuzquierac bacochac bere bearri, eta veguietan: guciec leitu bideduze liburu espiritualac, eta ayetan icusi videduze, nit⁸ errandezaqueten baño yago: Aite Fr. Luis Granadacoa dago aiñ expresivo ontan, nola gucien: aizace Jaunec, ece enseñanza comuneraco erratendu guise ontan: persona bildur dutenac procurecen dute iruquicea viste aiñ erreccogituri, ece ez sollic estute paratu nay veguiec gaucetan, ceñec servicetu dezoqueten becatu iteco, eta ere bay guardacen dire veguirececo hermosure edificioena, pinturena, simuacroena, eta orlaco gaucena, supuesto estire gaistoac.

Au, eta berce anitz gauce, erratendu Maistru andi onec veguien peligroen gatic, erreconocicendu, ez sollic bearrieta: vearietan convenide paracea cobru, bada leio aubetatic sarcen dire manchac Animen, ece inquietacen, turbecen, eta manchacen dute: Ha! Jaunec, cembañ aldis aiceagatic conversacioat, graciebat, chistebat, equivocoat: guero retiroan causecendu inquietudea, eta desveloa.

Causacendu susto, Escriture Sagratuen interpretec, eta Sanduec escrivien dutena puntu onen gañen: batec adverticendu Galenon obretan, eta afirmecendu padecitu dezaquetela veguiec eun eta amavi enfermade ezautuec, eta estela admireren gaitz multitudine ontas; cergatic Medicu Espiritualec observatu dute vicio iago animetan, ece Galenoc enfermedade veguietan: S(a)n Agustiñec afirmecen du bere Confesionetan, cergatic bere

3. Hola eta ez “dute”.

4. Biak ageri dira: “Aingeru” eta “Aiñgeru”. Hemen “Ainguiruec”.

5. Ez “empañacen”.

6. Ez “ditugu”.

7. Espero dena “duena” da eta ez “duenac”.

8. Espero dena “nic” da eta ez “ni”.

oñec etceitecen errevelatu, erresistiken ce bere veguiogui, eta elevacen zuela Jangoicoari bere vegui invisibleac, libraceco bere oñec lazo perniciosoetatic: naidu erran, ece veguiiec, ceñec servicecen dute ez tropezaceco, arquicenda⁹ lazqui tropezu, eta da necesario lazqui cuidado veguietan, egon bear baute animec seguro: Bañe yago lotsacen nau S(a)n Geronimon exclamacio arrec: Cer icen deiteque (erratendu) ece anitz aldis esnaiz accordacen Escriture Sagraduco pasagerem bates, dembora guti dutena leituric, [1 at.] eta etzaquet desvietu, edo quendu nere memorietic hermosure bat, ceñec duen anitz hurte, icusi nuela Erroman.

Bada orai, cer erranen dute gauce aubegui libertino ayec, ceñec beti deuquete objeto deleitablea presente, deuquete ocasioa veguien aurrean, eta erran dezaquegu orla escuen ertean, aicendute beren chisteac, icusten dute beren donaireac, escuchecen dute beren lisonjac, eta guero erresistituco dirella facilidaderquin, eta desechatuco dutela, objetaoa ofenditu bague Jangoicoari: Au da arrogancie bat (exclamacendu ayen contra S(a)n Geronimoc) gure sentidoac pensacendu, icusten duena, aicen duena, gustecen duena, icucen duena, eta da arrastratue apetitoac escacen dion gaucetara, ceñen deleitearequin da aprisionatue; eta no obstante aiñ egui andie, naidute leitu comedietaco liburueta, galanteo deleitable ayetan, eta ez deleitetu: naidute aitu prenda anditaco cantare ayetan, eta ez guelditu prendaturic.

Guacen fede onarequin, aren confianza estayen icen temerarioa, edo confiecen dire orlacoac, aimberce seguridaderequin arrojacen direnean becatuen oportunidadera beren virtute propioan, edo Jangoicoaren graciens; esta berce arracioric, ceñean estrivetu deitequen aren confianza: guacen icustera, ya bata, edo bercea doden ongui fundeturic: Guacen lembiscora, guizon aubec iruguico¹⁰ dute beren pasioneac moderatu ago, mortifiquetu ago, ece Sandu ayec, ceñec casi beren vici gucie empleatu zute oracioetan, lagrimetan, asperezetan, cilicioetan, penitencietan, estut nic aimberce siñestacen: eta alare icustendut, ece Sandu aubec temblacen cirela edocein occasio peligroso tatic, eta ingenuidade andierequin confesacen zuten, etzutela prometicen victorie, beicic peleacen Partoac erraten cioten nacione baten costumbrera: au da ez erresistiken gadelaric enemigoas, beicic escapacen gadelaric.

Valiedayela gucien gatic confesio publico ore, inzuena S(a)n Geronimoc Vigilancioren contra, ceñec galdeiten cio, cergatic vildur cen, vici ceitequelaric berce batzuec bezela ciudadean, vicen ce Yermoan, edo Soledadean Fiera salvajeac becela, errespondatu cio Sanduec, vildurcen naiz zu icusies, vildurcen naiz zuri aiceas, vildurcen naiz eciñ sufriceas zure altanerie, eta iduri bazaizu, au estela deusere? vildur dut aimberce becatu iteco peligroes, ceñien ertean vici zaden, vildur dut veguirece lascivoac, eta au guti den bezeala, etce alquecen erratea expresione au, bada ni esniteeque atrevituko pronunciecer, ezpaliceque bere agocoa; cergatic aprisionatu esnazadaten Rameran veguiiec, eta esnazaden eramo aurpegui hermosorem batec abrazo desonesto tara: Instecen zuelaric Vigilancioc ece ori etcela vencicea glorierequin, beicic escapacea cobardierequin: Paciencia añaditu zue S(a)n Geronimoc! Nic confesatu beardut nere fragilidade propioac, estire erraten

9. Ez “da”, baizik “dute” espero da.

10. Hemen “iruguico”, baina “irugi” eta “iruki” ageri dira.

viozac hellegatu naiela escuetara aiñ enemigo poderosoarequin, zuc iten duzun bezela, cergicat guertatu deiteque ez izulcea victorioso; bañe vildur dut gueldicea galduoric; eta orgatic confesacendut¹¹, confesacendut nere flaqueza: estut peleatu nai victorien esperanzarequin, estaiela guertatu, ece galdu dezaten noizbet victorie.

Ha! nere oyente amatuec, bada aiñ guti fiercen bace S(a)n Geronimoat ocasio batzuen erdien, contenicen etzutenean beren beiten peligro proximoric, beicic remotoa, cein ce villecea carriquen emacume vanorem bat; nola prometicen dute mundano oyec aimberce seguridade ez peligro remotan¹², beicic proximoetan, ceñ icenence iruquicea clavaturic veguiec alaco personen semblantean; topacea, aicea, conservacea¹³ llaneza frequentequin, nola estire vildurcen beren irries, beren visites, bada Sandu au vildurcen bace veguirece bates, bay Geronimo izulcen naiz erratera, eta oraño etce fiercen encuentro bates: galdeitendut, deuquete libertino oyec heritu ago pechoa arrien golpequin, ece S(a)n Geronimoc oracio iñes? belaunez callos beteric nola zoquen arec? veguiec andiago negar iñes? dire aimberce zuen baruec, zuen cilicioac, zuen disciplinec, zuen mortificacioac, nola S(a)n Geronimonaç? barcatu bezadate, ece nic estut siñestacen¹⁴, estut siñestacen, eta ala bearda escapatu ocasioetatic S(a)n Geronimoc itenzuen bezela, izen agatic penitente ago, ece Sandu au.

[2] Confirmececo yago egui au, paratu bezate veguiec andre maravillosa artan, erratendu Discipulo amatuec, icusi zuela Ceruen, acometitue icenduena zazpi buru, eta amar punteco Dragon bates, juance escapacen Desiertora: Bada Andre onec segun anitz Sanduc, signifiquecendu Anime pura, justa, graciens dagona, eta aiñ asistituric Iguzqui Divinoaren Justicies, acompañacen dute milagroac, eta ure perfeccionean da grado andibet: *Signum magnum aparuit Caelo Mulier amicta sole*: cergicat muestracenda aiñ timida, ece Dragon aren lembisco amagoa gatic escapacenda Desiertora aimberce velocidaderequin: da eracustea guri, erratendu S(a)n Agustiñec, ece icenic animebat purena, sanduena, eta asistituena milagros Elice Militantearen Ceruen, escapatu beardu cuidado andierequin becatu iteco ocasioetatic; ece escapacen, eta apartacen estena pronto andre au bezela, ceñ icusi zuen S(a)n Juanec Ceruen, eta iten badu ere milagroac, erorico da vicio ontan, eta bercetan: zazpi buruec signifiquecen dute zazpi vicio capitalac, eta amar puntec significecen dute amar mandamentuec.

Nic contatu dezaquet zuegui nere Anayec Catalogo andibet guizonena alde batetic lazqui Sanduec, ece ez egotea gatic nimiamente temerosoac beren fragilidade propios, erori ciren vicio ontan, eta berce anitz enormentan. Eta norc estu senticen estremecicea araguiec vildurres, acordacen denean Santiago hermitaño famoso artas, ceñec etzuen jaquin contenicen icusiric becatu iteco ocasio lisongero bat, beicic galdu zuela merito grecie errecogitu cituenac berroguei, eta amar hurtes, penitencia horribleac iten, eta extenuaturic gorpuz grecie, erorice culpen, pasatu ce complacencietic estru-

11. Bi aldiz *confesacendut*.
12. Hola “remotoan”, baina “proximo etan”.
13. Ez “conversacea”.
14. Bi aldiz *estut siñestacen*.

pora, estrupotic eriocea itera, eta eriocetic precipitetuco ce abismo profundoaren azquen desesperaciona, Jangoicoac bere escu poderoso-areq(ui)n espacio sostenitu. Orlacoa icendu ce caida Victorino Solitarioana, esribituric San Gregorio gatic: Orlacoa icenduce Tolomeona: Orlacoa Maccario Romano arena, eta orlacoac ere berce anitizenac, lembiscoa Anacoreta lazqui Sanduec, ceñetas itendu mencione Paladioc, ece bere escarmentuerequin ematen digu ezaucera, eguietela adagio ore: iorere dereotype esta iten lazqui gaistoa.

Exemplare aubequin, norc erratendu, icendu zuela¹⁵ escrupulosoa temorea, confesacen zuena S(a)n Geronimoc, erraten zuelaric confesacen dut nere flaqueza, eta ya ongi fundeturic dagon bere temorea; nola persona libertino oyec estire vildurcen? Persona oyec vestituric sedas, aciric comodidaden erteau, apacentaturic delicien erteau, nola prometicen cire fortaleza ore, ece guizon penitente, eta crucifiqueturic Jesu-Christoren gatic etcire atrevicen prometicera; Cer presuncioa! Cer altanerie! Cer temeridea! Eta izulcen naiz erratera zuegui Sabioarequin, ece peligroa amacen duena, peligroan acabatuco dela.

Aizagun S(a)n Juan Chrisostomori, nola afirmecen duen, ece Jesu-Christoc orden berri Evangelicoequi¹⁶, casi etzue iñ yago, beicic joatea apartacen ocasio gucie¹⁷ ayetatic, nondic facilmente hellegacen dire traspasacera mandamentu divinoac: Aizace cembeit exemplo señalatuenac: legue antigua-ko mandamentu etan prohibicen ce homicidioa, edo eriocea, ez ior ilcea, cé lazqui guti observatue, cergatic hellegacen cirelaric frequentemente guizonac irritecera itz atrevitu, picante, eta desatentoequin, dificultaderequin contenicen cire guero, ez pasaceas itzetatic golpetara, golpetatic heridetara, eta heridetatic eriocetara. Cer inzuen bada Jesu-Christoc? formatu zuen¹⁸ cercabat mandamentu oni, eta erranzue orla: aitu duce, erran cela antigoegui estuzu illen: bada realidadean erraten dicet, ece edoceñec erraten duenac be-re anayeri Raca, naidu erran injurie levebat, izenenda juicioco reoa, icusi zace emen, nola impidececo homicidioa, edo eriocea, quencendu ocasioa, ceiñ ematendu itz picante, atrevitu, eta desatentoac.

Yago antigua-ko¹⁹ leguean prohibicen ce jurementu falsoa; estuzu jurementuric falsoan iñen: quebrantacen ce au causa gutirequin, cergatic guizonac acostumbreturic mincecera ordinariamente termino exagerativo, eta ponderacioequin, facilmente hellegacen cire exageracioetatic jurementuetara, eta jurementuetatic perjurioetara: paratuzue ere Jesu-Christoc berce cercabat mandamentu oni, eta erranzue orla: aitu duce, ece antigoegui erran ceiquiotela, estuzu jurementuric [2 at.] falsoan iñen. bada nic realidadean erraten dicet, iolaco modus estuce cer jurementuric iñ, beicic icen dayela zuen mincecea bay, bay; ez, ez: icusace emen nola impidececo jurementue quencendu ocasioa, ematendutena exageracio superfloac. Antiguako leguean prohibicen ce adulterioa, estuzu adulterioric cometituco, etce cumplicen pre-

15. Espero dena "zela" da.

16. Ez "Evangelioequi".

17. "guci" espero da, ez "gucie".

18. "formatu zuen", baina berehalaxe "erranzue".

19. "antiguaco", baina "antigoegui" paragrafo honetan bertan, eta aurreko eta ondoko paragrafoetan. Eta "Antiguaco" berriz ere ondoko paragrafoan.

cepto au fidelidaderequin, cergatic acostumbreturic guizonac veguirecera objeto sensualegui, facilmente pasacen cire vistetatic deseotara, eta deseotatic becatuen execuciora: JesuChristoc paratuzue berce cercabat mandamentu oni, erraten zuelaric orla: aitu duce, ece antigoegui erran cela, estuzu cometituko adulterioric; Bañe nic realidadean erraten dicet, ece edoceñec icustenduenac andrebbebat deseaceco, edo acto desonestorem bat iruquiteco, ya comeiticendu adulterioa bere viocean: icusace emen, nola impidececo adulterioa, quencendu ocasioa, ematen dutenac²⁰ veguirece desenfrenatuec: guise ontan JesuChristoc aubequin, eta berce orlaco preceptoequin defendacendu guizonegui ayetatic gucietafic, ceñec paratu dezoqueten peligroan quebrantaceco bere legue Sandue.

Lazqui fundeturic doctriñe ontan, erratendu S(a)n Bernardoc, aitu estai-tequena susto anitz bague, nai baduzu veguiretu (mincecendu Doncellequin) nai baduzu veguiretu guizonegui, eta icusi ceitecen, ya etzada virgen, etzada ezconde, beicic adultera, cergatic aiñ materie deliquetuen, ceñean esten ematen parvidaderic²¹, asquide gestoat, descuidoat, ocasio chiquibet, mugumentuet, silencio estudietuet, ademanbat, equivocoat, gaucebatur, beres daus estena, asquide becatu mortaletaco, asquide isiteco suet, ece izeliric egonence ya Jangoicoaren gatic persona artan; eta apartaturic ocasio aubetatic esliceque icenen yago, beicic ause, descuido onen gatic eldude izetera pavesa, eta cesatu bague aticececo guero enemigo, eta bere imaginacio propioac, casi batere etcena, hellegacenda volcan bat izetera, ya dago animo gucie inquietudean, eta convertituric bere pasioneac.

Ontan, eta orlaco ocasioetan esliceque atrevituko atracera fiadore zuendaco; guizon docto, eta prudente bacochic ere aseguretu dezaque, gauce aubetan gucieta arquicen ote den parte asquidena dividiceco bere vioza Caridade Divinoaren gandic? Norc discernitu dezaque, ya vistetan, ya pensamentueren objetotan, edo amets peligrosoetan izendu den culpablea bere negligencie? Norc jaquin dezaque esfuerzoac, guero intuenac icendu den amorio propioaren artificioac, naiuelaric disfrazatu berari culpe, eta utci baquean bere complacencieri?

O Jangoico andie, norc aseguretu dezaque progreso, edo regreso insensiblea gracie Divino aren asunto ontan? Norc distinguitu dezaque limiteac, paracen direnac anime batean vicie eriocearena? eta tinieblen arguie, erratenzuena Job Sanduec cerbeit yago, edo gutiago deleite arena? mugumentuet cerbeit yago consideraturic, edo prontoago? vorondatearen acto imperfectoat yago, edo gutiago, omisione bat, ceñean icen deiteque yago, edo gutiago descuido? pensamentuet hellegacen dena grado artara, precedicen duena culpe grave ari, edo cerbeit aurrerago? Ha Jaunec, ece aubec dire abismo batzuec, ceñean dagon lazqui guti instruituric guizona, ceñean etzaque aseguretu Directore sabioenac, eta solo permiticen zaigu deica Davidequin: *ab occultis meis munda me Domine*: garvizadazu nere Jangoicoa culpetatic, ceñec estalcen ceiden neri.

20. “dituztenac” espero da, ez “dutenac”. Edo bestela “dutena” izan behar luke, ez “dutenac”.

21. “parvidaderic”, ez “parvedaderic”.

Bada examinetu dezala bacochar dembora ontan bere conciencie por me-nudo, eta icusibea ya observatu duen Jangoicoac erraten duen gucie bere mandamentu Divinoetan especialmente vicio ontan, ceiñ da gaitz andiena gucietatic, gaitz bet, ofusquecen duena bere imaginacioa, ofendicen du entendamentue, gaitz bet iten duena semejante bestiegui beren deseotan, eta dembora laburrean destruicen du bere on gucie, dembora, hacienda, reputacioa, osasune, prudencie, libertadea, gracie, glorie: *quam mibi, et vobis &:*

[3]Naiduzu²² proseguitu trato desonesto, eta ocasio peligrosoetan, particularmente juntecearequin, juntetu zadaten bezela Mayececo Bazcoa vi-guerren egunean Mutil, eta Nescatoac bazcarie itera, eta satera guciec junto, edo mezclaturic, eta guero arsalde gucie pasacen duzelaric danzan erretireturic quartoan, guciec nasiric, á rio rebuelto, eratenden²³ bezela, ganancia de pescadores, pasacen delaric beren ertean cembeit libertade, llaneza, delectacio, aunque ezpadire juntecen ere alaco intenciorequin, nayduze aitu prenda andico cantareac, eta ez guelditu prendaturic, au casi imposiblea da, bada erratendicet edocein pensamentu desonesto, edocein viste desonesto, edocein itz equivoco, edo canta desonesto, edocein llaneza, eta libertade, edocein accione indecente, edocein apa, edo besarca emacumequin dire becatu mortalac, doquezalaric²⁴ advertencie, zuen ertean arquicenden bezala²⁵, estuce utcico ezaunceco ece orlaco junteceori dela ocasio peligrosoat, zeñen gandic zeuste obligueturic apartacera, eta ustera alaco bazcarie ori, cein de cause anitz desorden, eta becatuena, bay nere Christioac, iruguicean batac bercean ertean sobra libertade, llaneza, eta confianza, au da motivoa erratendu S(a)n Geronimoc, ain issiinic egoteco luxurieren sue. Andre, eta Guizona, erratendu Sandu onec, direla sue, eta lastoa bezela; eta Demonioa beti dago su oni ayce ematen, bistu dadien lastoan; gauce erraza bada, iseguicea lastoan sue, ain erraz, edo errazago da, isseguicea luxurieren sue gastetan trato gaistoarequin, tratacearequin Mutillec, Nescatoequin, eta Nescatoac Mutillequin. Erratendigu San Pedro Damianec, Indie Orientaleco oyanbatean, direla vi arri genero, deycendirenac Piribolos, eta bercebazu deycendute arr, emeac, ain propiedade rarocoac, ece paraturic bata bercean ondoan, concebiken dutela sue, eta vistucen dela llama ayetan, de suerte, ece esparcicenda quea oyanan aldamenean; orla succedida²⁶ anitz seme, eta alaba familicoequi. Itenduze la vista gorda. Ó Ayte, ta Amac, icusten estucen bezela, usteas conversacion²⁷, diverticen zocoeyetan gasteoyec mezclaturic, á nola vildurnaycen, muguitu, edo vistudadien zuen ertean luxurieren sue eta condenatu ceisten eternidade gucico. Oray erranendu norbeytec, ece lenago orla induleta, eta nic diot ece uso, condicio, eta costumbre gaisto, eta peligrosoac quendu beardirela, eta onac seguitu: Erranenduze etzadatela juntecen becatu iteco intencioarequin, eta etzadatela erorico becatuen, aizace

22. Hemendik aurrera testuaren barruan aurkitzen zen paper batetik hartzen dugu.

23. “eratenden” eta ez “erratenden”.

24. “doquezalaric” dio “doquezelaric” esan beharrean.

25. “bezala”, baina beste guztietaan “bezela”.

26. “succedida” eta ez “sucedicenda”.

27. “conversacion” eta ez “conversacioan”.

zuen desengañureco sucesoau; Vicielaric Santiago, Hermitañoa desiertoan entregaturic oracio, eta penitenciera, eramocioten Sandu oni Doncella, edo Nescatoat endemonieturic, zeñen gorpucetic botatucituen demonioac. Aytec²⁸ doncellarenac, deseosoac aseguretu zedien erremedioan beren alaba, escatucioten Sandueri permititu zezan gueldicea alaba egin parebates yago soledadean. Bañe, ó fragilidadea guizonarena! Ya peligroac asicen descubriven viarrec: arec, ece ez consenticeagatic, entregatuzue bere escue sueri iru ordus, icustencelaric bacarric soledadean, eta andrebatequin bere cuevaren aldamenean, etorricen azqueneco consenticera, erorcera becatuen arequin, eta ilcera. Bañe cein icenduce bere penitencie? Amar urtes inzuen penitencie lazqui riguroat²⁹ sepulturebatean zeñean encerratucen. Fietu ceiste oray etzadatela erorico. Desengañetu zeiste gasteac, eta desengañetu gaycen gucioc, ece fragile izatea, da naturaleza humanoaren miserie, dembora gucietañ dá gaisto, bañe particularmente ocasio ontan, ceñean deuquegu eriocea veguien aurrean frances erreprensibleago, eta ala erratendicet Mutil, eta Nescatoegui utzacela itia alaco bazcarie, edo convalachea, ece emendic aurrera etzaice permitituco, eta *esperacendut gisten bondadean iñendutela aprecio*³⁰ (3at.) aviso ontas, igualmente erratendicet Gurassoegui³¹, Ayte, eta Amegui, Nausi, Echeco Andregui, eta lecu ematendutenegui paratu dezaten cuidado prohibicean errandutena, ezpaute izenay consiente³², estalquin, edo alcabuete erranduten asuntoan, eta gauce gucien gañetic adverticen diotet Etcinoci, edo Justicieri beren obliguecioen medios paratu dezatala³³ cuidado andibet erremediecan desordenau, eta berce edocein pasacendirenac errien, eta³⁴ oray señalatuduten persona guciec executecen, eta obracen ezpaute errandioren bezela emendic aurrera arquituco dire incapaz absolucioric errecebiceco³⁵, eta lo mismo da aubec³⁶ etorcea ene oñetara, nola ez etorcea, cergicat joaindire³⁷, etorcendiren videan, esta arracioa condenatu nadien ni bercengatic.

28. Hemen Aytec dio, paragrafo honetan bertan *Ayte, eta Amac* esan du, eta 3at. orrialdean *Gurassoegui, Ayte, eta Amegui* erabiltzen du.

29. “riguroat” eta ez “rigurosoat”.

30. Bost hitz hauek azpimarraturik daude eskuidatzian.

31. Hemen *Gurassoegui* ipintzen du, eta, hitz horren esanahia adierazteko edo, *Ayte, eta Amegui* erasten du.

32. “consiente” eta ez “consciente”.

33. “dezatala” eta ez “dezatela”.

34. Hemendik bukaeraraino den-dena ezabaturik dago.

35. “errecebiceco” irakurtzen dugu, baina “errecivitue” dago 3. testuan, 2at.,5.

36. Uste dugunez *da aubec* irakur daiteke.

37. Gure ustez “joaindire” irakur daiteke.

2. TESTUA

Dela Muerte:

Statutum est omnibus hominibus semel mori Ap(ocalip)si' Cap(it)e. 9.

Noticie triste, eta desdichetuet ecarcen diotet gaur nere Christio fielac; eta da guciec ill bear dugule; ontara errespondatuco direte, noticie ociosoat dela, cergatic beti deuquete presente agoan, eta veguietan; bañe cer importacendu, bañere ez paute pasacen imaginaciotic alaco gauceric. Bañe, ó Catholico Auditorioa, mincecen dut ayequin, ceñec arquicen diren sarturic alde batetic mundu ontaco placer, eta gustoetan, eta verce aldetic proximoaren errencorean, acordatu bague, bañere ill ez bear dugun bezela, eta ni gaur Jangoicoaren celo ardiente batequin eldu naiz empeñaturic arrancacera ene oyenten animo etatic descuido pernicioso au eriocearena. Ala nola errencorea icustenda obligueturic orcicera castigoan vildurren gatic, eta erorcerica principen indignacion², arquicenda lazqui varren, eta cruelago; eta varcacea injuriebat veguirecenda flaqueza batec desonrracen duen bezela; unionea, eta baquea badiduri, desterraturic deudela mundu ontatic, ayec ceñequi³ lecuec ocupecen dutenac, estadoaren interesen correspondencie, eta odolac verac unitu bear cituenac, auchi, eta destruicen dire, eta nai luquette arruinetu, eta goratu bazuec bercen desgraciengañen, queren⁴ igualdadea beren enemigoen daco, sosegacen dire proximoaren errencore, eta aborrecimenturequin arquicen direnean, eta acaso erioceco orduen barcacen badiote, esta cergatic amacen duten, beicic cergatic viotza erdi illic deuqueten, eta inderric bague aborrecico⁵, cergatic ayen sentimentu guciec deude iceliric bezela, cergatic deude vildurturic erioceandaco; eta comunmente guertacen dena da, ala nola izendu vicie, icetenda eriocea: *qualis vita finis ita:* eta cer erioce esperatu dezaquete alaco personac, ceñen vicie da, orai proponitu dioten bezela? Eta caracterea da christiotan parteric andiena: consideratu bezate Jaunec, eta nic asqui dut erratea, alaco guizonac vicidirela espiritu munduoequi, cergatic beren vicien beiñere estire acordatu erioceas, eta erioceac verac ematen diote argui, icusi dezaten infernuco videa, eta acencera ustea au, da causa, icendadien aimberce itsu mundu ontan, da cause, egon deicen vicioac ain arraigaturic, eta despoblaturic Jangoicoaren ichea; eta nic gaur evitececo gaizqui aubec ene aizaleen beiten, nai nuque imprimitu oyen viocetan arguibet, ceñec argui indezan oyen accione guciegui: au de memorie eriocearena, nola beite medio poderosoago libraceco barrengoceguedade interior artatic, cein beite cause becatuena; impugnecen dutelaric cein peligroso den au bazuendaco, eta bercendaco veldur injustoa, iten diotlaric presente erioceco ordue dela gauce inciertoa, eta ala temeridadea da,

1. “Apocalipsi” dio eta hurrengo paragrafoan “Apocalipsis”. Bestalde, esaldi hori ez dago liburu horretan, baizik eta *Epistula ad Hebraeos* deritzaionean 9, 27.

2. “indignacion” eta ez “indignacioan”.

3. Hemen “ceñequi” eta paragrafo honetan bertan “aborrecimenturequin”.

4. “queren” irakurtzen dugu, baina “quexen” ere irakurri izan dugu. Egia esan, ez daki gu zer esan nahi duen.

5. “aborrecico” eta ez “aborreciceco”.

ez pensacea aren beiten, dela erioceco ordue ciertoa; eta ala necedad andie da, veldurcea memorie orri, bada beiñere ez guinduque galdu bear vistetic, icusi bezate ene discursoco asunto gucie, pensatu bezate eriocean, cergatic estaquite cer ordus ill deizquen, au izenenda lembisico puntue; pensatubezate eriocean, cergatic precisoqui ill bear duten au da viguerren partea, bada proseguiceco aciertorequi, arquicen naiz necesiteturic Jangoicoaren auxilioas, eta gracies, lagundu bezadate guciec escacera erraten duguleric Aingui-ruerequin Ave Maria.

Statutum est omnibus hominibus semel mori Apocalipsi)s⁶ Cap(it)e 9.

Lembisico pausue ematen duena guizonac vici aldera, da lembisicoa ematen duena sepulcrora, istante berean ireguicen duenean veguiec arguire, pronuncieceda [1at.] aren contra sentencie eriocecoa, aren beiten icen lizequen bezela delitoa vicicea, asqui de vicicea, meregi dezan ilcea; egui da, etzela au izendu gure lembisico destinoa, bada gure naturalezaren autoreac animetu zuen lendavisien gure gorpuce inmortalidadesco aicearequin, paratzue gure beiten viciceco principioat, cein etzetequian deviletetu, eta izeli demboren errebolucioequin, eta ain guti adiñequin; disponitu zuen Jangoicoac bere obra alaco ordenarequin, bada desafietu zuquia siglo guciogui, eta bere armonie etzela beiñere disolvitu⁷, eta alteratuco mundo gauce estrañoequin; sollic becatuec secatu zue zain Divino au, trastornatu zue disposicio feliz au, armatu zue criature guciec guizonaren contra, eta Adan eguince mortal, istante berean becatu eguin zuenean, becatuen gatic, erratendu Apostoloac, sartu cela eriocea munduen, guciec atracen dugu gure pechoaren varrenean, jaiocen garenean badirudi gure Amen entrañetan edan dugule veneno lentoat, zañequin eldu gaden mundu ontara, eta consumicen digu bazuegui pronto ago, bercegui baño, eta beti eldude paracera ematera eriocea, egun gucietan goude ilcen, istante gucietan quencen digu vici porcionebat, eta urvilcen gada pausuet gueiago obire; gorputce consumicenda, vicie gastacenda, alimentuec corrompicen digu, erremedioac devilitecen digute, eta gure vici gucie esta berceric, beicic agonie luce, eta penosoat, eta estado ontan arquicen gada Adanen seme guciec.

Eta estado ontan cer imagen icen bear guinduque familiar ago eriocea baño? reoat condenaturic dagonean ilcera, cer villetu beardu edocein aldera izulcen badu viste, beicic objeto triste au? Eta guti edo aniz vicitu gaizquena, izen beardu motivo veguirececo inmortalac vezela? Cer temeridadea! Cer imprudencie! Erioceco ordue baguindoque⁸ guciec señalaturic, jaiococo puntuen atracen baguinduque escrivituric vecosquien, cembat hurtes vicitu beardugun, eta cein den gure azqueneco egune; momento cierto, eta fixo au, urrutia ego agatic, asustetu, eta turbetuco cigu, eta etcigu utcico istentebat sosegurequi egotera; beti idurico ceiquegu dembora laburre oraño falta cequigun dembora; iduri onec cein iruguico guinduque presente, disgustetu

6. Hemen “Apocalipsis” dio. Ik. 1. oharpena.
7. Lehenbizi “disolvituco” idatzi dū eta gero -co ezabatu.
8. Hemen “baguindoque” eta berehalaxe “baguinduque”.

aracico cigu gauce guciec, icenen guiñequemotela munduko placer, eta gustoendako, indiferente icenen litceque fortune, eta mundu gucie icenen litzeque molesto, eta enfadoso guretako; istante terrible onec, cein beiñere ez guinduque galduco vistetic, sugetatuco cigu gure pasioneac, acabatuco citue gure errencoreac, desarmatuco citue gure venganzac, calmatuco citue araguien errebelioneac, eta gure vicie determineturic modu ontan aimberce egun fixotara, ez litzeque izenen iago, beicic preparacioat azquen ordureco; bada Catholicoac non dago gure prudencie? Eriocea icusiric urrutitic punto fixo, eta determinetuetean, asustetuco cigu, ez guinduque casoric eguiñen mundues, eta gure burues, deituco cigu Jangoicoarengana, eta egonen guiñequemocupeturic aren memorien; eta erioce au izenic gauce inciertoa, etorri deitequenean⁹ egun oro, istantero; erioce au ceñec sorprenditu beardigun, etorri deitequelua guc guti uste dugunean; erioce au acaso egonenda atarien, estu ocupecen gure memorie, eta utcicen baquean? eta nola estaquigun certezarequin gaur illen gaden, edo ez, vici gada ala nola gure hurteac eternoac li-requen bezela?

Contemplazace au zuec naucen estadoan, eta icusico duce estela momenturic esteiquena icen zuendako azquen ordue, eta acaso ez ote da izendu gure visten zuen proximoren baten daco, esta accioneric andiago icen agatic, esteiquena hellegatu paracera tiniebla eternoco sepulcroan, Herodes icenduce eritue gravequi bere puebloko genden gandic, arquicen celaric aplauso, eta alabancen [2] erdien, esta egunic ceñean guertatu estequenic gure vicieren fiñe, Jezabelec precipitatu zue bere burue egun berean, ceñean escogitu zuen utcicera icusteco fausto, eta ostentacio gueiagorequin bere palacioco leiotan, esta festin delicioso agoric, ceñec estezaquen servicetu sustento mortaletaco, Baltasarec acabatu zue bere vicie vanquete magnifico batean; esta loric eramo estezaquenic ló eternora, Holofernes vere exercitoen erdien ain vencedore Erreino¹⁰, eta Provincies, ilcé Israelgo andre baten escutic, esta enfermedaderic ceñec etzaquen causetu gure vicien fiñe, continuamente goude icusten enfermedade leveac engañacen dutela Medicuen sabidurieri, eta erien esperanzari, nola estaquitela gueldicen direla eriocean, figuretu ceiste zuec naucen circunstancietaco vicien, eta deseatu dezaquecen bezela, apena contatu dezaquece ill direnac guise ortan, gutiago uste zutenean, topatu estezaque cenean¹¹ gauceric aseguretu dezaquenic, etzaicela zuegui guertatuco lo mismo: zuec erraten duze, zuec confesacen duze, eta confesio terrible au¹² estu berberic icen bear, beicic discursoat pronunciecen ducen bezela costumbres, beiñere servicetu bagne usetu dezaacen precaucionerembat defendaceco peligroetatic? Bañe au esta terrible, eta lotsagarrie, cergatic incertidumbre au tocacen balizzeque sollic ordure, lecure, edo erioce generora, ceñec amenazacen digun, es litzeque icenen ain terriblea; bada ala nola S(a)n Agustiñec erraten duen vezela, cer importacen zayo guizonari illcea bere Aiden ertean, edo erregione extranoetan¹³, gua-

9. Beharbada, “deitequena” espero da eta ez “deitequenean”.

10. Hemen “Erreino”, eta “Erreinu” 5,1.

11. Bi hitz egink, “estezaquecenean” idatzi beharran.

12. Hola: “au estu”.

13. “extranoetan” eta ez “extrañóetan”.

cean, edo ichesoan? importacen duena, da, illcea piedade, eta justicien, importacen duena, da, illecea Jangoicoaren gracien, aude, bete bear liguquenac¹⁴ confusios asunto ontan, bada gauce inciertoa da, illen ote gaden Jangoicoaren gracien, edo becatuen, estaquigu cer icenen den berce munduen, non es-taitequen beiñere mudetu condiclos; cer escuetan erorico dire zuen animec atracean gorpucetic, doielaric bacarric Jangoicoaren tribunalera; izenen ote da ingureturic arguis, eta eramoric Jangoicoaren tronora bienaventuretuen egoen gañtan, edo cercaturic Demonioes, eta sepulteturic infernuen.

Arquicen dire vi eternidaden ertean, eta estaquite cein tocatu bear zaio-ten, sollic eriocearequi aguirtuco da secretoau; eta da posible vicitu bear dutela ain tranquilo, eta baquean incertidumbre ontan? Daquiguleric istante bere ontan icen deitezquela presentatuec gure animec Jangoicoaren aurrean, eta icen destinetuec glorieraco, edo infernuco su artara: Ah catholicoac, bada gucie acabatu bear baluque gurequin, impioac, ceñec etzoquen fedeac noti-cieric, iruguico zue arracioric asqui errateco, etzagule pensatu gure vicien fiñen, beicic sanzagun, eta edanzagun, ece biar illen gada; bada guri fedeac descubricen digunean aurreraco pena bazuec, edo recompensa eternoac; gu¹⁵ hellegatu bear dugunean eriocera guti uste dugunean, esta eraquerie vi-cicea, pensacen duguleric, impioec pensacen duten guise berean? Egon gaizque istentebat berare pensatu bague momentu ontan? eta bercela erran bezadate, cerequin justifiquetucote¹⁶ acence ori, ceñequin vici diren beren azquen egunes? acaso gastetasunerequin? onec berac ematen digu motivo yago vildurceco; costumbre gaistoac, gusto excesivoac, pasione desenfrena-tuec, convite andiec, mugumentu ambiciozoac¹⁷, famaren ansiec, venganzaren desevoac, dire cause guizonen parteric andiena acaba dezaten beren carrera adiñ floritu ontan, Amnon hellegatuco ce zarcera, ez pace icen luxuriosoa, Absalon ez pace entregatu ambicionera; eta Erregue Siquenen semea ez pazue amatu Dinari; bada fundecen bazadate gauce aubetan, ceuste lazqui engañaturic, cergatic yago illcen dire gastetatic, zarretatic [2 at.] baño nola aitu duten, orai artio erran duten exemplotan! acaso fundecen dire be-ren gorpuceren complexionean? Cer iduri zaiote dela osasune robustoena? Esta berceric, beicic velabat isiñic dagona, cein itzelcen den futz betequin; egun bateco enfermedadea asqui de acabaceco munduen den robustoena; fiecec zarate empleo andietan; bada jaquin zace, ece erioceac estuela errespec-tacen adiñic, eta empleo andiric: gucie pasacen da zuequin, eta zuec torrente rapidoat bezela incapazac deteniceco, gucie arrebatacendu, eta sepultecendu abismoen eternidadean, eta ala deus ere esta gueldicen, eta gucie acabacenda.

Bada cerequin justifiqueten dute descuido fatal au eriocearena? Norc asegurecen dice egun beteco vicie? Non dago zuen sabidurie, eta prudencie? Cer impresione, eta mella itendu zuen beiten zuen adisquide, eta aiden erio-ceac? Eguie errateco Jaunec, consideraceas sollic au, betecen naiz confusiones: eta estiotet escacen berce gauceric, beicic eman dezotela lecu

14. “liguquenac” dio.

15. “gu” eta ez “guc”.

16. Laburturik: “justifiquetucote dute”.

17. “ambiciozoac” eta ez “ambiciosoac”.

entendamentu eri, reflexionaceco consequencie naturalac, eta prudencie berac bacarric atrabear cituenac eriocean incertidumbretic; ala erratendu S(a)n Matheoc ogueite vortz guerren capituloan: *vigilate itaque, quia nescitis diem, neque horam;* erioceco ordue da gauce estaquigune noiz izenenden, hurte oro, egun oro, istantero icen deiteque gure vicien azquena, gueros oyen cuidado guciec, oyen ansie guciec, eta deseoa unitu bear luquete disponiceco felicidade eternora, cein iorc etzaque quendu: inciertoa da zuen erioceco ordue, gueros egun oro ill bear ciñuquete, eta veguiretu zuen pausuec, moribunduen pausuec bezela, cergatic istante gucietan dago espera, datorren escacera bere anime; inciertoa da erioceco ordue, bada eguiñ zace zuen accioneac, ala nola veala joan bear ciñuqueten bezela ayetas contu ematera, etzacela utzi gueroco zuen penitencie, etzaistela descuidetu converticeco gure Jaunen gana, cergatic dembora da propia ortaraco; ez paduce seguridadic¹⁸ egun beteco, cergatic dilatatu bear duze zuen penitencie berce dembora incierto bateco? Zuec nola estaquicela tragatu bacinute veneno mortalen bat, dilatatuco ciñuquete berce dembora bateco erremedioa peligrecen zuenean, eta cein cen precisoa zuen vicie conservaceco? Bada eriocea¹⁹ doquecena zuen gorpuecan, estice permiticen dilaccioneric, au de casoa certan arquicen zaraten, arzace veala zuen naurriec; emanzace prise appliquecera erremedioa, bada bevide venenosoa, ceñec inficionacen duen zuen animec, etzaque tardatu anitz ematera eriocea; ya uquicen duze eriocearen azquen ordue, eta veguiec erchi, eta irequi batean, joanen dire acaso presentacera Jangoicoaren tribunalera, non icenen diren juzguetuec oyen obrac diren bezela, aubec dirade reflexione naturale, eta prudentenac, cetara²⁰ ecarri beardigun eriocean incertidumbreac; eta izete agatic azquen orduau ain inciertoa, imprudencie da, ez pensacea aren beiten; eta arzace beti zuen naurriec, ez arrepaece agatic descuideturic.

Bada bacindoquete preciosone²¹ pasaceco senda mear batetic, eta alde gucietatic precipicios ingureturic, etciñuquete manatuco estalceco veguiec, ez icuste agatic peligroac, beicic discurrituco ciñuquetela medio posible guciec pasaceco dañuric bague; eta zuec ematen duzun²² errespuesta oni, oponicen zarate practiquen; zuec zeuste icusten obiec irequiric zuen oñetan, eta objeto terrible onec lotsacen dice; eta valietu bear ciñutenean zuen prudencies, usececo precaucione gucies, ez erorceco abismo ontan, zuec zaratate vendacen duzenac veguiec, ez icusteco; eta topacen duce gauce ontan fundementurembat, vildurceco erioceari? Ez nere fielac, esta²³ eriocea vildurcen zaionari, beicic Jangoicoan Justicieri, zañec paracen digun aurrean gure conciencie gaistoa; au de oponicendena Ceruko arguieri, eta illuncen digune entendamentue; eta ichutasun²⁴ voluntario onec obliguecen digu atracera salvacioco videtic, eta badiduri quencen digule esperanza izulceco

18. “seguridadic” eta ez “seguridaderic”.
19. “erioceac” espero da.
20. “cetara” eta ez “certara”.
21. “preciosone” eta ez “precisione”. Lerro artean erantsirik dago.
22. “duzen” espero da.
23. Lehenbizi “ezta” idatzi du eta gero “esta” egin du.
24. “ichutasun” dago, baino hurrengo orrialdean “itsuec” ipini du.

sarcera artara; ez nere Catholicoac, [3] etzacela desconfietu gure Jaunen bei-ten, cergicatic vioces villecen dutenac, estiote ematen atarierequi veguietan; escazace, eta clama zace Jangoicoaren ichean, + eta postraturic JesuChristo-ren Magestadean aurrean, erran bezate, arguizaguzu Jaune, eta iregui zaguzu veguiet, eguiñ zazu desvanecitu deizela gure animen tinieblac; desengañetu dezaguzu Jaune errore, eta falsedad mundu ontatic; itsuec gada eguiñe da, bañe Jaune ez goude ongui arquituric²⁵ illuntasun ontan; negar eguiten du-gu, deuegu horrore ceguedade ari, eta ez gaitzela descuidetu arreglacen gure ocupecioac, eta conversacioac, eta quendu superfluo gucie; eta modu ontan esperatuco dugu vildurric bague erioce onbat ceñen medios icusi gait-zen guciec junto glorien. Amen.

[3 at.] Gastea²⁶ zada, eta pensacenduzu gasteac estirela ilzen, zarrac ilzen dire, bañe gasteac estire escapacen, por lo comun yago dire gasteac ilzen direnac, ece zarrac, gasteac fiecen dire beren gastetasunean, ó adin florituen, eta idurizen zayote etzayotela hellegatu bear, bida hellegatu bearzayzu noiz eta descuidetu ago dagonean bat, eta orduen ezpadago disponituric cer ize-nenda, sentimentuec estagonean erremedioric, oray zoude á tiempo utzi bague gueroco, cergicatic estoquezu seguridairic²⁷ biarco egunes, cergicatic gaur bambezada²⁸, acaso viar estzada²⁹ izenen, por lo mismo aprovechatu á tiempo, ó lenagatic.³⁰

3. TESTUA

Sermon de el Juicio Particular.

Statutum est omnibus hominibus semel mori, et post hoc Iuditium¹ ad Heb(raeos) C(apite) 9.

Gauce guciec dutela vere dembora, erratendu Salomonec: *omnia tempus habent*: dembora jaiocero, eta dembora illceco, dembora irri eguiteco, eta dembora negar eguiteco, dembora erreparticeco, eta dembora vilceco; bañe Jesu-Christoc erraten digu gauce bat ona dela dembora gucietaco, eta da, oreicea S(a)n Pabloc ematen digun Doctriñes, erraten digunean Jangoicoaren

25. “arquituric” eta ez “arguituric”.

26. Hemendik aurrera testuaren barruan aurkitzen zen papertxo batetik hartzen dugu.

27. “seguridairic” eta ez “seguridaderic”. Ik. 18. oharpena.

28. Laburturik: “baldin bezada”.

29. Lehenbizi “estara” edo idatzi du, eta gero -z- erantsi du eta -r- edo delako hori alda-tu eta -d- ipini du.

30. “lenagatic” eta ez “lenagotic”.

1. Latinezkoetan zenbait oker aurkitu ditugu. Hemen “Iuditium” dio eta ez “Iudicium”. Besterik: “inditia” eta ez “indicia” 1,2; “juditium” eta ez “judicium” 1,3; “juditia” 1,4; “inenarabilis” 1,4; “peccator” eta ez “peccator” 1at.,3; “Accusatione” eta ez “Accusatione” 2,3; “aducet” eta ez “adducet” 2at.,2; “juditium” 2at.,2; “peccato” 2at.,2; “juditio” 2at.,2; “prestet” eta ez “praestet” 3,1; “eterna” eta ez “aeterna” 3,1.

tribunalean determinetu dela, ill esqueros guciec juzguetuec izen gaitzela: *statutum est &a.* Doctríñe ontas oreicea bada gauce ona, ala neguko, nola udeko, ala Garizume, ta aste sanduco, nola Bazcoetaco; eta argatic aguindu cioten Jaun arec bere Discipuloegui, edocein demboras predique zezatela Doctríñe au, eracusten cigutelaric, ure dela, gu juzguetu bear gaituen Juez Soberanoa: *Praecepit nobis praedicare, quoniam ipse est Iudex constitutus à Deo:* Juicioco egun au bada prediquetu bearda dembora gucietan, cergatic ontas ez oreicea, da gure dembora gucietan becatuen erorceco motivoa.

Erratendu David Erregueac, becatarien vide guciec deudela becatus ci-quinduric dembora gucietan: *Inquinatae sunt viae illius in omni tempore:* nondic eldude bada becatu mortal, edo venialetan, aiñ maiz erorce au? Berac ematendu errespuesta: *auferuntur inditia tua a facie eius.* Ez oreicetic becatarie, ill esqueros juzguetue izen barduela; eta ala juicio ontas acenduric vicicea, dela becatuen ain maiz erorceco motivoa: gueren dembora gucietan eguiten badire becatuec consideracio onen faltas, izenenda gauce ona dembora gucietaco, S(a)n Pablo ematen digun Doctríñe ontas oreicea becatariec; eta dembora gucietan Prediquedoreac, Doctríñe au prediquecea, Jesu-Christoc aguindu cioten bezela bere Apostol Sanduegui: *praecepit nobis &.* Argatic bada determinetu dut gaur prediquecea S(a)n Pablo eracusten digun Doctríñe, eta Jesu-Christoc aguindu zuen asunto au, ponderacen dize-telaric, cer pasatuco ceicen, ill eta veala alaco juicio particular artan; modu ontan presente deuquezelaric Doctríñe au, garviric conserva deitecen zuen videac dembora gucietan: Asicen naiz:

Dembora, eta lecu artan ceñean atraco den anime gorpucetic, erioze aren medios, topatuco du bere Juez Soberanoa, erraten diola: *accipe iudicium:* Ea guacen juiciora. Orai estaquigun bezela, noiz, eta non icenen den gure illcea, ala ecin erran dezaquegu, noiz, eta non izenen den Juicio au. Erran dezaquegune da, icen deitequela lecu artan non ofendicen dugun, gu juzguetu bear² Jaun ore³ vera. Erratendu Jesu-Christoc, icen deitequela guace, edo lecu artan berean, ceñean eginduzun becatarie, zuc daquizun becatu ore. Ó eternidadea! Otoiz eguitendu S(an)to Tomasec, estudietu, eta iquesi duden gucierequin, ecin comprehenditu dezaquet, nola atrevitu deitequen becatarie, becatu mortalean lo eguitera, siñestacen duclaric, dagon lecu ortan berean icen deitequela aren juicioa; eta an ardezaquela condencioco sentencie.

Juicio ontan guertatuco zaizquigun gaucetatic, gutiago sentitu deitequena, da, an presentatu baño lenago istante artan izenen dugun bildurtasune, eta izenic au cuidado gutiago eman dezaquena, ala ere, erratendu S(a)n Anselmoc, ocasio artan izenen dugun pena, eciñ expliquetu deitequela, cergatic den Infernuco sue, eta tormentu guciec vaño andiagoa: *etiam poena iuditii est poena inenarabilis, et gravior, quam gehenna:* Ain andie izenenda nere chistio⁴ maiteac ocasio artan agonie, edo veldurtasune, bada atrebicen naiz erratera, asqui izenen litcequela, paraceco gure anime odolesco icerdi batean, capaz baliz ontaraco. Erratendu S(a)n Gregorioc, yieldu zuela S(a)n

2. Hitzen bat falta da hemen, *gaituela* edo.
3. “ore vera” dio, baina “orrec verac” espero da.
4. “chistio” eta ez “christio”.

Ignacio Martir gloriosoa, examinecezan ill esqueros, erresucitetu guizon bat, eta galdeitearequin Guizon oni S(a)n Ignacioc, cer guertatu ceiquion ill ondoan juicioan, etciola errespuestaric eman, beicic guelditu cela odolesco icerdibet ceriola, bere gorpuz guitic.

[1 at.] Bada cein gauce terriblea, eta cer tormentue izenenda anime tristearendaco, consideracea dembora labur beten buruen, presentatue izenen dela Tribunale Divino artan! Nola esta izenen trance au, ecin gueiagoco izugarrie! Naiz dela persona ayendaco, ceñec icen dezaqueten esperanza (cergatic justoac diren) ayen favore emanen dela sentencie, izenenda trance au lazqui terriblea.

Atencioarequin consideracen dutenean S(a)n Hilarion gloriosoari guertatu ceiquiona, gueldicen naiz izuturic, eta lazqui beldurtasun andibetequin. Aizace zuec ere, eta confunditu zaiste, iztu zeiste becatari miserableac. Ya illceco cegolaric Sandu au, beldurtasun batequin arquicen cen, eta etzen atrevicen onen anime gorpucetic atracera; bañe esperanza andibet arturic, asicen erraten bere animeri; Cerc beldurcen zeitu anime nerea? Irur oguei ta amar hurtes servicetu duzu Jangoicoa, eta ala ere, etzara atrevicen gorpucetic atracera? Itz aubec erraten zuelaric, atracen anime dichosa⁵ ore gorputcetic. Erran zadazu bada orai, Sandu onen anime dichosoa, cerc izucen cizu, gorputcetic atraceco? Bentures cergatic uste ciñuen, etciñela salvatuco? Ez, bada ongi irebaci ciñuen Cerue, zure penitencie, eta obra onequin. Aizace motivoa becatariec, eta onec izucen ez pazaituste, desengañatu zeiste, edo estuzela viotcic, edo dela zuen viotza, arri, eta diamante guciec baño gogorrhoa. Oreicen cen Anime Justo ore, gorputcetic atra ta bereala, presentatu bear zuela Jangoicoaren tribunalean, bere obra gucien contu ematera, eta oreice onec solo, izucen eta beldurcen zuen. Bada Sandu bati au guertatu bacequion, cer icenenda zuetas becatari gaistoac, empleatu duzenean vici gucie, Mundue, Demonioa, eta Araguie servicecen. Sanduet baru egunequin mortifiqueturic, eta irur oguei ta amar hurtes Jangoicoa serviseturic arquicen cena, izucen, eta beldurcen bacen, Jangoicoaren Tribunalean presentaceco cegonean, nola esta beldurtuco hurte bates bein berare Jangoicoa servicetu bague, becatuen sarturic viciden becatarie, berce Jangoicoric bague, beicic bere tripe? Ó nere Christio maiteac! Cembañ atormentatuco gaituen cuidado onec! Ó eta eman baliguque Jangoicoac arguitasun bet au ezaunceco! Nola trance artara hellegatu baño len, beldurtuco guiñequeren⁶, eta procuretu coquiñeque, prevenicea ocasio artaraco, orrequin izeteko sentencie gure alde.

Ain izucecoa, eta beldurcecoa bada juzguecera hellegatu baño len izenen dugun pena; esta gutiago izenen, sentituco duena becatariec, ya presentacen denean tribunale Divino artan. Ecín gueiagos terriblea izenenda trance au, an arquicen diren circunstanciec, aicera ematen diguten bezela; S(a)n Agustin gloriosoac pintecen du nolacoa izenen den tribunale ore, erraten duelaric; gañeco aldean egonenda Juez Soberanoa, colera, eta asarratasunes beteric; veitico aldean Infernue idequiric, sentencieren beguire, becatarie tragaceco, escubico aldean egonen dire becatuec, acusececo becatarie, eta ezquerreco aldean, Demonioac, justicie escacen dutela. Orai otoiz eguitendu S(a)n

5. “dichosa” dio hemen, baina berehalaxe “dichosoa”.

6. “guiñequeren” eta berehalaxe “guiñeque”.

Agustiñec: *Quo fugiet peccator sic deprehensus*: Nora iguesi eguiñendu vecata-riec, arquicen denean aimberce contrarioen ertean! An izenenda pena! An tormentue! An suspiroac! Ecin pensadeiteque, erratendu S(a)n Bernardorc, gauce terrible agoric, nola den presentacea⁷. Becatarie tribunale ontan, sentencie eternoat aicera; au obequi ezautu dezacen, icusidezagun tribunale artan arquicen diren gauce aubec, particularqui, eta vacocha beres.

Tribunale artan presentatu, eta lembisico icusico duena da, Juez Soberano ore gucie asarraturic, eta coleras beteric becatarieren contra; Orduen ezautuco duzu, becatarie, zure Jangoicoa, Juez riguroat⁸ eguiñic; bada estuzu ezaucen orai zuretaco Aite amorosoa denean. David Erregueac erratendu, ezautue izenen dela Jaun ore. Cer bada, orai esta ezauncen? Ezaucen⁹ da, eta esta ezaucen; cergatic arquicen diren Christioen ertean, estutenac ezaucen Jangoicoa, ez pada jurementu, ta maldicioequin agoan arceco aren izen sandue. Arquicen dirade guise berean vicidirenac, Jangoicoric ez palu-quete vezela, erraten dutelaric Job Sandueren itzec, aicera ematen dutena; Cer ezauncen du Jangoicoac? An dago Jangoicoa Ceruco cortinen ertean guardaturic, guc ere icusten estugun vezela, ez gaitu arec ere icusten. Solo empleacenda Cerue governacen, munduko gauces casoric eguiñ bague. Egua da nere Christioac, Eregie au estuela iorc agotic atraco, cergatic guciec da-quiten, badela alacoendako Inquisicioa Logroñon, [2] bañe arquicenda anitzen viotz, eta entendamentuetan: *Dixit enim in corde suo*: estago malicie au mi gaistoan, beicic viocean, ez entendamentuen, beicic vorondatean: estute uquecen Jangoicoa itzequin, bañe obretan vici dirade Jangoicoric ez paliz bezela. Eta zuc aicen nauzun Christioa, bentures aubetatic zara? Arquicenda Jangoicoa lecu gucietan, eta ala ere ofendicen duzu aimberce libertaderequin? Cer eguiñen ciñuque zure gandic urrutti balego? Justoa da, eta ala ere becatu eguiten duzu, aren justicieric ez paliz bezela? Omnipotentea da, eta asarracen duzu, deus ecin eguiñ letzaquena valitz vezela? Eguiasco Jangoicoa vici de, eta tratacen duzu, guezurreesco Jangoicoa, edo pintetue valitz vezela? Argatic bada estuzu orai ezaucen, bañe ezaune izenen da noiz? Juzguecen zaituenean; orduen ezautuco duzu, icusi duela, ezautu duela, eta badaquielu zuc orai eguiten duzun gucie. Orduen ezautuco duzu dela eguiasco Jangoicoa, Justoa, Omnipotentea, illen, eta vicien Jueza. Orduen ezautuco duzu, orai ezaucen estuzune, cergatic sufricen ditzquizun zure becatu, eta maldadeac. Cer izenen da bada orduen zutes? Nola gueldituco zara icusten duzunean Jaun aren aurpeguie asarraturic zure contra? Alcides erraten cioten guizon baten aurpeguie, eguiñ zuen Jangoicoac ain gauce terriblea, bada solo veguirecearequin vere semeac, eta icustearequin ain asarraturic, istantean veala illic gueldituzen. Bada cein terriblea, eta icagararie esta paratuco bere aurpeguie Jaun Soberano arec aicera emateco bere colera, eta izuceco, eta castiguececo gaistoc? Ó cer pena izenen den anime tristearendako, solo veguirecea Jaun ari! Eta icustea gucie justices beteric, lecuric izen bague misericordierendako.

7. “presentacea. Becatarie”. Puntu marka sobre dago.

8. “riguroat” eta ez “rigurosoat”.

9. “ezauncen? Ezauzen”. Hola dago.

Ontas gañera izenen den trance terriblea, da Demonioac tribunale artan, anime tristearen contra, eguiñen duen acusacioa. Ontaraco bada atraco ditu plazara,edo publiquetuco ditu becatu guciec, eguiñen ditu acusacio falsoac, valiecen delaric ontaraco solo sospechas, eguin nai duen vezela munduen persona batec bercea galdu nai duenean. Erratendu S(a)n Ciprianoc, erranen diola orduen Demonioac Juez Soberano ari; Justicie Jaune, Justicie anime onen contra, bada au zurea celaric, eguinde nerea; bada nic estut sufritu onen gatic, zuc sufritu ciñuen vezela pasio sanduco tormentuec, eta eriozea; nic estiot ofrecitu zuc vezela vicice eternoa; beicic errambeza verac cembaat pesadumbre eman ditzquoden; errambeza cembaat aldis engañetu duden; cembaat aldis erran cioten Prediquedoreac, eta ezautu zuen verac, nic villecen niona, cela, seucleco condenacioa; eta ala ere ni servicetu nau; eta zu ofenditu zaitu. Justicie badu¹⁰ Jaune, justicie da nerequin egotea seucleco, ni servicetu nauena aimberce trabajurequin, eta zu obeditu etzaituena aimberce alivio eta premioarequin¹¹. Justicie Jaune, bada ni Ceruco Angiru¹² ederra nitzelaric, condenatu banicen, solo pensamentusco becatu baten gatic, arracioa da au ere condenacea, aimberce eguin dituenean. Ó nere Christioac, cer eguiñen du ordu artan, estuenac cer erresondatu Demonioaren argumentu oni? Nora izulico da anime tristea! Estaquit nic, nor atrevicen den becatu eguitera; estaquit nic, nor negar eguin bagne egon deitequen bere becatu etas, ez icusteagatic trabaju, eta peligro ontan bere anime.

Bañe cer izenenda Demonioaren acusacionequin, juntecen badugu gure concienciec berac eguiñen digne? Erratendu Espiritu Sanduec, becatarie convencituric gueldituco dela, concienciec berac eguiñen dion acusacioarequin; *Acusatione conscientiae suae convincetur*: bada concienciec confirmetu, eta garaituco du Demonioaren acusacio verac, erraten diolaric becatarieri bere beiten, bai arracioa du Demonioac, cergatic onlaco, eta alaco ocasioetan convideten ciñuen Jangoicoaren Magestadeac, ya Prediquedoren medios, ya egorcen cizun auxilioequin, eta zuc despreciecen ciñuen gusto cíquin beten gatic, arracioa du, bada veiñ ere estuzu eguin eguiasco penitencie, confesacen baciñen, gueiago cen cumplimentus, Jangoicoa seguiceagatic vaño; etciñuen berceric eguiten, beicic itz eman, emendatuco ciñela, eta guero veala izuli becature. Cer satisfaccio eman dezakezu arracio aubegui? Joseph Patriarcac errancionean bere Anayegui, ni naiz Joseph, zuec saldu ciñuten Anaye, guelditu ciren aubec, ecin gueyagos lotsaturic, eta izuturic, ecin deus erran cezaquetela, cergatic beren conciencie propioac acusecen cituen, beren Anayeren contra eguin zuten becatues. Bada cer icenen da zure concienciec [2 at.] berac acusecen zaituenean, estuzule gauce onic batere eguin, beicic anitz becatu, eta lazqui andiec! Cer izenen da zutes ocasio ontan! Esta au asqui izenen becatarie arrituric gueldiceco? Bada au gucie guertatuco zaizu trance terrible artan. Eta icen deitequela izucen estenic, au consideracearequin! Eta izen deitequela demborarequin prevenicen estenic, aitu esquieros, cer guertatuco zaion juicio artan! Ó becatarieren ichutasune!

Ontas gucies gañera, da ecin gueyagos terriblea juicio ore, eta lazqui

10. Beharbada, “*bada*” esan behar luke.

11. “premioarequin”.

12. Normala “*aingiru*” edo “*aiñgiru*” da.

beldurceoa Juez Soberano ore, cergatic juicio artan examinetuco dituen gure accione, eta obra guciec: *Deum ergo time, quia cuncta quae fiunt, aducet Deus in iuditium*: an bada examinetuco ditu lembisico, obra, eta accione gaistoac, ya bearden bezela eguin ote diren; eta azquenean examinetuec izeinen dire Jangoicoaren Magestadeac eguin ditzquigun favore, eta beneficio guciec: au entendazera eman cigun Jesu-Christoc berac erraten zuenean cargu eguiñen cigule becatues, justicies, eta juicioas: *arguet mundum de peccato, de justitia, et de iudicio*: Examinetuco ditu bada, lembisico, gure conciencien arquicen diren becatu, eta obra gaisto guciec, lazqui guardaturic iduqui baditugu ere gure beiten. Sophonias Profetaren agotic erratendu, examinetuco duela gure anime, eta erregistretuco duela argui edo antorcha isiñic dagon batequin: *Scrutabor Ierusalem in lucernis*: Estu erraten Iguzquieren, edo Illerguieren arguitasunerequin, beicic argui isiñerequin, eta cergatic? Aizace, Iguzquieci estu arguicen icheco lecu gucietan, quarto illun, eta zocoetan, eta argatic aubetan arquicen diren gaucec icusteco, preciso da arguie isequicea, eta artas valiecea. Ala bada icusteco zure conciencierien zocoetan guardaturic deuquezun becatu oyec, erregistretuco du, eta examinetuco du argui isiñerequin, guelditu bague deus ere, cargu ontatic pasatu bague: *arguet mundum de peccato*:

Ontas gañera examinetuco ditu penitencieci, negarrac, Caridadea, Conciencierien garvitaseune, Jangoicoari, eta Eliceri zordiogun obediencie. Juez Soberano aren itzec dirade; arcen dudenean dembora, nic obra onac juzguetuco ditut: *Cum accepero tempus, ego justicias judicabo*: obra on guciec, nola diren Confesioac, Comunioneac, varu egunec, limosnac, eta berce gañeraco guciec, nere examine ontatic pasatu bear dute. Parazace emen zuen consideracioa nere Christio maiteac; Examinetuoc izen bear dute gauze aubec? Cargu eguiñen bada juicio artan penitencies, barues, eta disciplines; Cer izenenda danzetas? jatetan, eta edanetan eguiten diren exceso etas! Limosnac examinetuec izen bear badute, cer izenenda Lapurquerietas, eta errestitucioa eguin bague egoteas. Virginen Castidadeac pasatu bear badu bere examine ontatic? Cer erranen dugu accione, eta obra desonesto etas? Itz ocioso etas contu eman bear badugu, cer eguiñen dugu jurementu, eta maldicio etas? cer falso testimonio, eta murmurecio etas? Cer canta desonesto, eta berceren honrraren contra erraten diren gauces? Justoen obrac ala examinetuec izen bear badute, cer izenenda becataries, eta obra gaisto, eta escandalo etas?

Erranen duzu bada orai Anime becatarie, cer escuse emanen duzu gauce aubetas cargu eguiten dizunean Jaun Soberano arec? Cer? Erranen duzu, etziñequela? Edo guardatu bear ciñuena cer cen, jaquindu estuzule? Bada Jaun Divino arec errespondatuco dizu, cer, bentures nere Prediquedoreac itz eguindute zuretaco Erdaras, franceses, latiñes, edo zuc ecin comprenditu dezaquezun moduen? Bentures guardaturic zeuden Doctríne eracusten zuten Liburuec? Motelduric arquicen cen fedea, ecin expliqueturic bere Misterioac? Ez orlacoric; aitu ciñuen Sermonac; izendu duzu norc eracusi; ez paduzu jaquin, izendu de zure culpes, eta faltas; au gucie esperacen zaitu¹³ Anime tristea. Ó nola au ezauturic, estuzule defendantuco¹⁴ arracioric, gueldituco zara ecin gueiagos lotsaturic.

13. “zaitu” eta ez “zaizu”.

14. “defendantuco” eta ez “defendaceco” edo.

Cargu au eguin ondoan, emanendu Juez Soberanoac Anime miserablearen contra condenacioco sentencie; erratendiolaric: Zuas, Zuas madarieque-tue Infernuco su eterno artara, zure becatuen paga arcera. Ó sentencie terriblea! Nori botacen diozu Jaune sentencie, eta maldicio ori? Zuc erredimitu ciñuen animeri? Eta norc daqui ni izenen ote naicen au guertatuco zaiona? Bada cer servicotu zaide orduen Christioa izena¹⁵? Cer Apez izena? Cer aimberce aldis erreccivitue Jesu-Christoren gorputz, eta odol preciosa, sacerdotea naicen bezela, nere contra ematen bada sentencie ore! Ó nere Christio maiteac, baldin nere contra, edo zuen contra, ematen bada alaco sentencie, badaquice cer guertatuco zaigun? Infernuen tormentu gueiago [3] izetea guc, Erege, Judio, Turco, eta Infiel guciec vaño; Cergatic salvaguiñezquelaric, gure faltas condenacen gaden. Cer iduri zaice orai nere Christioac! iduri zaice conturembat contacen icendu dela gaurco nere sermona? Ez orlacoric Aite erranen duze, beicic fedeac eracusten digune; eta guciec ala siñestacen duze? Acaso estire arquicen Christioen erteau, vicidirenac guezurre valitz bezela? Erran zala Salviano Obispoac. Erran zaguazu Obispo Jaune, siñestacen dute Christio guciec, edo ez? Ematendu errespuesta, erraten duelaric; Juicio au siñestacen duelaco señaleric estu ematen, eguin algucien eguiten estuenac, Juicio artan sentencie ona izeteco; eta apartacen estenac gaistoa izeteco peligro gucietatic: *Nemo est, qui iudicandum à Deo certus sit, qui non prestet, ut pro bonis operibus pereuntia bona capiat, vel ne pro malis mala eterna patiatur.*

Errespondatu zazu bada orai Christioa, egues siñestacen baduzu, juzguetue izen bear duzule, cer eguiten duzu juicio ontan, sentencie ona izeteco? Cer obra onetan empleacen zara? Ó Jangoico Soberanoa! Solo pensaceac, losacen nau. Confesoreac erraten badizu confesatu, eta comulguetu zaicela illen lembisico Iguendetan, Errosarioco Cobrarien indulgenciec irebastaco, edo illen iru guerren Iguendean Santisimoaren Cobrario indulgencie irebasteco, erraten duzu, maicegui dela dembora oyetan confesacea; ematen badizu, zure becatu egui conveni zaioten penitencie, erraten duzu gogorregui dela; erraten badizu, utzi dezazule berce personare-quin duzun trato gaistoa, esta onen gañen cer itzic erran. Erraten badizu, enzun dezazule astre egunetan mezabat; errespondatuco duzu, estuzule demboraric ortaco. Erraten badizu, eman dezazule limosna pobreaki, zure becatuen satisfaccioraco, ezdezáquezule; baduzule familieric asqui mantenaceco. Eta zuc ziñestacen duzu, Jangoicoac juzguetu bear zaituela? Estuzu siñestacen, erratendu Salvianoc, guezurre diozu, naiz erran agatic agoarequin, siñestacen duzule; bada siñestacen baciñuque, vici zaren baño obequi, vicico ciñeque, eta beldurtasun gueagorequin. Aizazu siñestacen eta beldurcen cen baten exemploa.

Prediquetu zuen asunto au bera San Nono Obispoac, aitu zuen Sermon ore, Pelagia erraten cioten Nescato batec, aitu zuen bezein laster siñestatu zuen, eta beldurtu cen. Onequin erretiretu cen desierto batera, bere becatues penitencie eguitera. An bada lenagoco gusto etas oreicen cenean, etsaiec pensamentu gaistoequin tentacen zuanean, penitenciec izutu nai zuanean, erraten cion bere burueri; Ó Pelagia veguirezazu juzguetue izen bear duzule,

15. Lehenbizi “izetea” idatzi du.

Demonioac acusetuco zaitustela juicio artan. Juez Divino arec contu erchie escatuco dizule zure obra gucietas, eta azquenean emanen duela sentencie. Ó Pelagia, ó Pelagia miserablea! Cer icenen da orduen zutes! Icenen duzu sentencie ona, edo gaistoa; icenen zara salvatue, edo condenatue? Ala juicio ontas oreicearequin, eta beldur izetearequin, garaitu cituen bere etsaiec, eta eguincen santabat Pelagia ore.

Ó nere Christio maiteac, guc bai erran dezaquegule arracioarequin. Cer icenen ôte da gurequin juicioco egun artan? Cier тоqui daquigu gure becatuequin asarraturic deuquegule juzguetu bear gaituen Juez Soberano ore¹⁶, bada cer espera dezaquegu, ure gure contra dagonean. Cer egui dezaquegu, aren Justicie, eta asarratasunetic escapaceco? Aitu dezagun S(a)n Agustiñe, eta arec emanen digu erremedio onbat. Erraten digu bada onec: *Qui vult fugere Deum iratum, fugiat ad placitum*: Jangoicoaren asarratasunetic iguesi eguiteco, eta aren justicieren ezpatatic libraceco, esta erremedio obeagoric, nola joatea Jangoicoaren gana, misericordiesco tribunalean dagonean, eta aren oñetan jarriric, escacea misericordie, eta becatuen barcacioa. Ardezagun bada nere Christioac erremedio au. Villetu dezagun Jangoicoa Misericordiesco tribunalean. † Ona non eldu zaizun bera, zuc villetu bearrean; Guruce au da Misericordiesco tribunalea, bada emen erredemitu¹⁷ cituen gure animec; jarri gaitecen bada onen oñetan, S(a)n Agustiñec erraten digun bezela, eta escazezogun misericordie, eta becatuen barcacioa, erraten dioguleric viotz gúcitic damu, eta urriquimentu andiereq(ui)n J. N. J.¹⁸

4. TESTUA

*Porro unum est necesarium*¹.

Da fedesco egui (nere Anime maiteac) ez guiñela etorri mundure, villeceria gure honrac, eta fortunec, eta ez gueiago vicicera gure aragui, ta apetituen aldera, beicic Jangoicoa servicera², eta villeceria gure animen salvacioa. Ausse da bacar bacarra gure fiñe, eta negocioric principalena, ceñequin cargatu guinducen gure Jangoicoac: Eta salvaceco negocio au logracen badugu, berce gañeraco gucie galduagatic, deus ere estu importacen; bañe au galcen badugu, mundu gucie gurea izenas, guti, edo batere valietuko digu. Naiz icen dadiela bat pobrea, edo abratsa, enfermoa, edo osasune duena, importacen du lazqui guti, baldin salvacen bada. Cer direla pensacen duze, ondasunec, abrastasunec empleo altoac, eta munduec gauce anditaco deuzquien contu oyec, salvacioaren comparacion³? Estire pisquebat beicic,

16. Hemen “ore” eta berehalaxe “nre”.

17. “erredemitu”, baina “erredimitu” 2at.,5.

18. Laburturik Jesu-Christo Nere Jaune.

1. “necessarium” eta ez “necessarium”.

2. “servicera” eta ez “servicecera”.

3. “comparacion” eta ez “comparacioan”.

aiceac eramocen duena: lo, edo amets bat, cerbeit iduritu arasten duena es-cuen ertean, beres deus ere estena. Bacar bacarra salvaceco negocioa da bat, gucie importacen duena, ta gure cuidado, eta atencio gucie eraman bear dizune⁴: *Porro unum est necesarium*. Nic naidut salvatu, da erran comune gucien agoan; gaistoenac erranendu ori bera; bañe cembañ gara, obras ori eracusten dugunec? Deseoac ditugu Ceruacoac⁵, bañe obrac Infernurecoac. Bañe beguire dezagun nere Adisquideac, ez gaitcen engañetu; guciec daquigu, ez itzequin, ez deseoequin, beicic obra onequin irebasten dela Cerue. Pensatu dezagun gure beiten ascoc urte au dugule gure azqueneco urtea, (izenen den bezela araraco guti pensacen duen Mutill, edo Nescato gaste orrec) eta ematen digule Jangoicoaren Misericordiecar urte au, illebete au, aviso oyec, villececo gure animen salvacioa, eta erremediececo gure vicice gaistoa. A! Erran zadazu anime gaissoa, baldin ez pazara aprovechacen dembora ontas, urte ontas, nola bear bada erremedio bague negar eguiñen duzun datorren urtean! Bat da bat (nere Catholicoac) gure fiñe, gure negocioa, eta au de gure animen salvacioa, eta onen gañen itz eguitea, izenenda nere sermonaren asuntu gucie; ematendut principio, eta escacen diotet, prestatu dezaten beren atencioa dembora pisquebates.

Cer balio du guizonari (erraten digu Jesu-Christoc Evangelioan) irebas-tea mundu gucie, fiñean galcen badu bere anime? Cerequin on eguiñen du, eta pagatuco du bere animeren caltea, baldin hellegacen bada condenacera? Punto, edo asunto au da betico ona, eta dichoso, edo betico gaizqui, edo desdichetue izetearen gañen; estago emen medioric, eta biteric, edo betico Ceruen, edo betico Infernuen: Ez banaiz Sandue, edo Ceruoa, izenen naiz seucleco condenatue. Baldin salvacen bagada, munduco naigabe, ta misericie estituste laburtuko gure betico dichec, ta felicidadeac: Eta condenacen bagada, lurreco honrac, dignidadeac, gustoac, ta fortunec estituste gutituco gure penac, eta tormentuec. Cer iduri zaice ontas? Esta importancieric andiena, villecea, gure animen salvacioa? Berce gauce, eta desdiche gucietan bada alibioren bat, vici ontan ez pada, bercean. Munduen banaiz miserablea, eta diche bagua, deuquet esperanza izeteko dichosoa Ceruen. Bañe salvaceco puntuen, estago berce videric; condenacen dena, betico condenacenda, iondic alivioric, eta erremedioric bague; beiñ galcen dena, seucleco galcenda. Comprendicen duze punto onen importancie, eta valioa?

A! nere Catholicoac, galdin zoce aimberce Iche oneco Seme, eta Alaba egui, nola, edo cergicat utci citusten aimberce honrra, ondasun, ta fortune, nola [1 at.] citusten beren Ichetan? Cerc eramo cituen Conventu pobre batera, jancicera aimberce humildade, penitencie, eta pobrezas? Eta erranen dice: Estugu berce negocio, ta fiñic, gure anime salvacea baño, eta au naidugu aseguretu. Beguire zace, cer errespuesta ematen dize asco Caballeroren Seme, ta Alabac aciric delicadeza andierequin, arquicen direnac abrazaturic Relgioan Gurucearequin. Galdin zoze Aite S(a)n Geronimo bati, S(a)n Pedro Alcantara bati, eta berce Sandu ascori, cer villecen zuten aimberce odolesco azote, baru gogor, mortifuecio cruelequin, egun on bat beiñ ere

4. “dizune” dio, baina “digune” espero da.

5. “Ceruacoac”, baina “Infernurecoac”.

beren buruegui eman bague? Eta erranen dize, ez guiñuen villecen gure animen salvacio⁶ beicic.

Ó Catholico nereac, eta cer da, gurequin guertacen dena? Gauce lastimosoa! Gu vici gaden moduen conforme, badiduri, estela gauce cuidado gutiago ematen duenic, gure animen salvacioac baño; Baldin iondic aguircen bazaigu ondasunen bat, dignidade bat, conveniencie bat, beala zabalcen ditugu gure besoac errecebiceco, pensatu bague conveni zaigun, edo ez, gure animec salvaceco. Bañe convideten bagaituste, Exercicio Sandu bazuec eguitera, asisticera Meza Nausi, eta Sermonetara, confesacera eta comulguecera illebetean bein, eta chucencera gure vicice gaistoa, orduen erraten dugu, precisoa da pensacea espaciorequin puntu orren gañen. Ó Anime itsue! gaur, edo biar utzi bear dituzun ondasunec arceco, zara ain lasterra, ta pronta, beguiretu bague, conveni zaizun, edo ez, eta zure anime salvaceco ain naguie, ta pisue, noiz asico zara, bear duzu ongi pensatu, eta icusi.

Jangoicoa gatic pensazazu, nolacoa izendu den zure vicicea, eta nolacoac zure pausuec. Aurtasunean etciñen icendu bercetaco, beicic jostaceco, chanza, ta mille burle eguiteco guraso egui: Gastetasuneco dembora empleatu duzu picardien, vanidadean, jocuen, retiro bague, mille itz verde, eta accione gaistotan, ascoren animec galcen dituzule: Eta estado arcera hellegatu bazara, zure cuidado gucie icendu de, nola mantenatu familie, aurreratu ichea, eta ondasunec, acomodatu zure humeac, eta atracea ongi empeñu artan, edo ontan. Eta salvaceco zure anime, cer eguiñ duzu? Deus ez. Eguie errateco, zarate nere Catholicoac, sator itsuec bezela, ez icusteco arguie: Satorrac dire animale batzuec lazqui habillec lurre muguicen, deuquete beren aposentoa, edo cabie lur pean, eta jancicen dute arropa bat ain suavea, eta leune, nola den Terciopeloa bera; eta orren gatic ere mantenacen dire lurses, dirade itsuec, iguesi eguiten dute Iguzquieron arguitic, eta sollic idequi, eta zabalcen dituste veguiec, illcera doacenean, ya bear estuten demboran; ceiñ de imagine vici bet gurequin guertacen dena. Eguiteco gure negocio bat, seguiceco pleituet, atraceco gure intento arequin gaucerem batean, ditugu lazqui vegui zorrozac, ta arguitacoac: bañe examinececo gure conciencie, chucenceco gure vicicea, confesatu, eta comulguececo devocio, ta frutuerequin, villececo gure salvacioa, mortifiquetu, ta venciceco gure apetitu, ta costumbre gaistoac, gada itsuec, eta arguieren etsaie; eta guero erioceco orduen, ya provechuric estagon demboran, zabalcen ditugu, satorrac bezela, gure veguiec. A! Vegui itsuec, ez icusteco Jangoicoaren Leguea, eta Jangoicoa icenic Iguzqui Divinoa Cerueri, eta Lurreri argui eguiten diona!

Bañe Adisquide nereac (itz eguiten duguleric pasione bague) cer penac, ta nequeac estitugu arcen, gaur, edo biar utcibear ditugun gauce auben gatic? Cembat icerdi estugu atracen gorputz aubec mantenacea gatic, ascotan lau quartoren ondoan galcen ditugule gaubec, eta egunec? Eta nola da, aimberce naguitasun, ta pereza salvaceco gure animec? Erran zadazu nere Catholicoa, cembat lo galdu araci dizu zure salvacioaren cuidadoac? Cembat Confesore prudenterequin consultetu duzu zure conciencie itsu, eta nasi ori, [2] chucenceco zure vicice gaistoa? Esta egui, beti villetu duzule laso, eta zabalena; eta baldin suertes topatu bazara Confesore chucen, eta justo batequin, secale

6. “salvacioa” espero da.

etzara berris izuli arengana, cergatic erchicen cizu pisquebat, eta ezaucen cituen zure maulec, ta pausuec? Eta erranen duzu nai duzule salvatu?

Certan ezautuco da, Enfermo batec nai duela sendatu? Sollic, cergatic eguiten duen Medicuec aguincen dion gucie: baldin onec aguincen badio, seguitu dezala ur gueiago edaten; orlaco janari, edo vianda genero, estuela cer jan: sufritu dezala gose, edo egarri pisquebat, pena au, edo ure, gañeracoan estela sendatuco: eguitendu gucie, osasune lograceagatic. Eta zuc Catholicoa, errateco, nai duzule salvatu, eta villetu zure animeren osasune. Cemba⁷ pena, ta neque sufritu duzu? Cemba dembora empleatu duzu Oracioan⁸, Meditacion, eta leicen liburu espiritualac? Cemba baru, penitencie, ta mortificacio egui duzu, garaiceco orlaco luxurieren pasio, ta apetitu desordenatu ori? Erran zadazu orai, pasatu duzu asteric, edo egunic retiroan Jangoicoarequin, ajustecen zure conciencieco contuec, eta arcen naurrie, orlaco ocasio, ta companie peligroso oyetatic iguesi eguiteco, eta salvaceco zure anime? Baldin Confesoreac icusiric zuen vicice urretu ori, erremediezaitesten, aguincen badice, etzaistela berriz juntetu fulano, edo fulana orrequin, cergatic arequin galcen duze zuen animec, obedecicen duze seucle? Baldin erraten badice, confesatu zeistela noicean bein, eta jaiqui zeistela pisquebat goizago, pensatu, ta meditececo ordu quartoren bat Jesusen pena, ta Pasioaren gañen, zuen Eriozaren, Juicioco Eguneren, edo Infernuco penen gañen; erraten duze, Jaune, berandu joaten zaratela guacera, deuquegu cer egui asco, eta estoquegu demboraric ortaco. Eta Iguendean, ta Jai Egunean? Zeuste aulferric, escue escueren gañen, batzuec suqueldetan sarturic murmureciotan, berceac plazan, tabernan, jocuen, eta asco pausu, ta conversacio gaistotan; Ontaraco badago dembora, eta sollic ecin topatu dezaquece demboraric zuen animec salvaceco, noicean bein confesaceco, Meza Nausietara, ta Doctriñe aicera etorceco. Ta guero erranen duze, bai⁹ deuquezela salvaceco deseoa?

Bai; bañe cer deseо da ori? Naiduze vici graciен, ta becatuen: ta baldin ez padeuzeze vorondate, ta deseо ori, eze bereric salvaceco, dio S(a)n Bernadoc, orlaco vorondate ones beteric dago Infernue. Zuetatic, anitzec naiduze gozatu mundue, bere gustoac, luxurie, ordiquerie, ta maldade guciec; eta guero penitencie bagne Anime, ta gorputze sartu Ceruen. Ecin icen deiteque gauce ori. Eta ala eramo zace veguien aurrean, paracen estuenac medioac, ta Mandamentu Sanduec, deseoric andienac baditu ere, engañacen da, ta condenatuco da erremedioric bagne.

Ó Jaune! (erranendu batec) cein guti pensatu duten puntu orren gañen! Bada certan pensatu duzu? Etzizu¹⁰ convideten gauce guciec, ontan pensacera? Izenen zara gutiago desdichetue, ta infeliz, cergatic estucen pensatu? Chiquiago dela uste duzu zure culpe? Etzoude munduen, ez pada zure salvacioas beguirececo; au de doctriñe, eta lecciotaic bat, eracusten dena Christioaren Erreligioan. Cein guizonen entendamentuen cabicenda, iduquia- cea valore, ta atrevimentue pensaceco etorri dela mundure berce finetaraco,

7. "osasune. Cemba". Puntu marka sobera dago.

8. "Oracioan", baina "Meditacion".

9. "bai" eta ez "ba".

10. "Etzizu" dio, "Etzindute(n)" edo esan beharrean.

ez pada salvaceco bere anime? Bada berce gauceric gure atencio, eta estimecio gueiago eraman bear duenic betico salvacioac baño? Eta nola da au bacarra, ceñes esta casoric eguiten? ta dago acenduric?

Cer cuidado, ta contue esta iduquicen Exercito batean, Tribunale batean, Comercio batean, eta berce estado suerte gucietan! Baldin acencen bazayo batu cumplicea obliguecio au, edo ure, beala dago norbeit, norc oreitu aracico duen. Cemba Nausi, cemba buru, ta fiscal deude gure gañen acordatu arasten digutenac gure obliguecioa, baldin acencen bazaizu¹¹, eta erreprenditu gure utsec, eta descuidoac? Bañe baldin Semebat, Alaba bat descuidetue bada bere salvacioaren [2 at.] puntu importantean; estago nausiric, ez gurasoric oreiceco, eta chucendu araci dezaquenic. Baldin errien badago gaucerem bat erremedio escacen duenic, nola diren escandaloac, comuniquecio sospechosoac, jocu excesivoac, à desoras egoten direnac tabernan, pisu, ta naurri escasac, estago justiceric, estago bururic ori chucendu, ta erremediecen duenic. Non erran dezaguegu, salvacea estela ez obliguecioa, ez cuidadoa escacen duen gauce, ezpada jostaceco, edo chanzataco.

Cerc itsucen gaitu, nere Catholicoac? Cer engañue da, guri pasacen zaigune? Berce gauce gucietan badire guizon prudenteac, eta arraciosoac, ta dirudi, salvacioaren puntuen, punturic valiosoenean direla arracio, eta entendamentu bagueac. Cergatic, cer valio dio guizonic habillenari, ta Erregueric poderosoenari munduen lucitue, eta gucion gañen triufetue, azquenean condenacen bada? Arracio oyetatic atraco duze, negocio gucion ertearen estagola bat, ceñes Christioac caso gutiago eguiten duten salvacioas baño, nola icusico duzen erratera noyen arracio, edo reflexionetatic.

Badire munduen vi Christio suerte, edo mota: batzuec dire cer eguin es-taquitenac, aulferrac, ociosoac, ocupecio bagueac; ta berceac ocupetuec, necatuec, eta beren gaucetan empleatuec. Galdin zoce aulferregui, certan pasacen duten beren vicie? Egunec dituen oguei, ta lau ordutatic partebat, dute lo eguiteco; bercea janciceco, apeinceco, ta orrestaturic atraceco ichetic; bercea jateco, edateco ta asececo; ta gañeracoa, visitetaraco, diversiotaraco, conversacio, ta jostace eroetaco, jocureco, ta erretiro bague, ta zoraquerien empleaceco: Beguire emen, nola doacen gure egunec, orla asteac, illebeteac, urteac, ta gure vicice guctie.

Ta diversio oyen erdien, cer dembora empleacen dute ocioso, ta aulfer vicidirenac, salvaceco beren animec? Apenas errezzacen dute goicetic, arrachera Ave Marie bat, eta ascotan pasacen zaiote illebeteac, ta urteac Errosario bat errezzatu bague: doi doie enzuten dute Jai egunean Mezabat, ta ori ascotan ez, ta orduen alden laburrena, ta Errien den Mezaric brevena, Christioaren señaleric bague. Nola cumplicen dituste Jangoicoaren, ta Elicerren Mandamentuec? Confesatu, eta comulguecen dire Bazcoetan borchas, eta beren gogoaren contra, Excomecacioac arrepatu estezoten, ta Christioac dire alaco opinionea ez galceagatic, ta orduen disposicio bague, ongi preventuric hellegaceco Aldarera; eta azquenean lazqui obra on guti, eta Christio eguiascoaren exercicio, ta señaleric icusico duze orlaco guizon ocioso, ta orlaco aiceas vicidirenac, ez eriozaren memorieric, ez Jangoicoaren

11. “bazaizu” dio, baina “bazaigu” espero da.

ezaunceric, ez converticeco asmoric, ez examineric, ez liburu devotoric, ez Sermonic, ez limosna, ez baruric, eta ez beren culpen penitencieric. Au de, nere Catholicoac, mundueri entregaturic deudela anitz, eta ascoren vicicean non erran dezaquegu, direla doi doye Christioac, batayetuec direlaco.

Nolacoac dire neque, ta negociotan sarturic vicidirenac? Dire gende, edo persona batzuec, ceñec tratacen dute gure salvacioaren etsaiec, Faraonec tratacen cituen bezela Judioac. Principe onec icusiric, joan cirela Judioac Desiertora, eguitera Sacrificioac, ta adoracera Jangoicoa, deitu cituen sobrestante, ta Judioen neque, ta trabajues contu arzale ciren ayec, eta errancioten: Judioac estaude bear bezela ocupetuec, ta empleatuec bear, ta trabajuetan; bada joaten dire dembora aulferric pasacera desertoan beren devocio, ta sacrificioetan; guelditu beitez nequean, ta aumentatu bear zaiote trabajue, orrequin pensatu estezaten beren Sacrificioetan.

Orla guertacen zaiote anitzegui beren salvacioaren puntuen; Nola mundenuec, pasioneac, eta etsai gaistoac, gure animen contrarioac, forjacen dituste istentero mille traba, ta embarazu, proponicen ditustela cer egun bear duten, eta negocioac estado gucietan, ordea beiñ ere ez gure salvacioaren negocioa: batzuec deuquete beti beren gogoan, ta viozean, beren tratoac, ta contratoac: berceac beren pleituec, comercioac, ta fortunec; berceac nequeac, ganadoac, ta langayec: aldebatetic dire dichosoac, [3] ez egoteco aulferric, ta ociosidadeari entregaturic; bañe bercetic faltazaiote principalena, cein de intencio chusena¹², ta Sandue: eguiten, ta pensacen dute asco mundenko negociataraco, bañe batere ez beren salvacioraco, cergatic estoquete au presente beren ocupecioetan, ta bacarric villecen dituste lurreco interesac, eta alaco moduen sarcen dire aubetan erregla, ta naurri bague, non lucecen dituste aldebatera Jangoicoaren gauce guciec: Oietas dirudi, erran zuen bezela S(a)n Bernardoc, esribicen ciola Aita Sandu Eugeniori modu ontan: badiduri¹³ Eugenio, estuzule faltacen batere zure cargu, ta obliguecioco gaucetan, ta faltacen duzu gueyago conveni zaizun gauzen: *Soli te negas tibi*: Zure ona, ta animeren provechues etzara oreicen. Modu ontan erran deiteque presente deuden anitzegui: Zuec zuen nequeas, zuen icheas, ganadoas, eta zuen negocioetas etzarate acencen, estuze deustan ere faltacen: bañe faltacen duze principalenari, gueiago conveni zaizuenari, nola den veguirecea zuen animen salvacioas, noicean bein confesaceas, ta comulgueceas, ocasio, ta peligro gaistotatic iguesi eguiteas, orlaco, edo alaco costumbre gaisto garaitu, ta venciceas, eta Jangoico aren Mandamentu Sanduec guardaceas. Eta au eguiten estuzun¹⁴ vitertean, nere Catolicoac¹⁵, erraten baduze ere, guciec naiduzela salvatu, engañecen zarate etsayeren esperanza falsoequin, eta izenen zarate galduec.

Berce persona batzuec, ceñec dirudite onac, ta devotoac, vicidire etsaien gandik engañetuec, azaleco vi devocioarequin¹⁶, beren mietan fundecen du-

12. “chusena” irakurtzen dugu, lehenbizi “chucena” ipini duclarik.

13. Hemen “badiduri”, baina paragrafo honetan bertan ipini du “dirudi”. Maizago oinarritzen da “iduri” partizipioan “irudi”n baino.

14. “estuzun” eta ez “estuzen”.

15. “Catolicoac” eta ez “Catholicoac”, ia beti azkenekoa erabiltzen duela.

16. “devocioarequin” eta ez devociorequin”.

tela virtutea, eta santidadea, virtutearen batere practiqueric bague. Onac dire baruec, Errosarioa, Meza enzutea, Calvario, Escapulario, novenac eguitea, maiz confesacea, ta comulguecea: bañe onec guciec cer valio du, falta bazaizu devocioric principalena, nola den Jangoicoaren Mandamentu Sanduec guardacea? Ezpadeuquegu humildaderic, obediencieric, castidaderic, sufrimenturic; itz picantebat erraten badigute, alchacen gada Lucifer baño altoago? Bada baldin erraz faltacen badugu gauce oyetan, gure salvaceco deseoac, ta devocioac dirade falsoac, ta embusterie andi batzuec. Aitu, ta comprenditu duze semejanza onequin = Eguin zace contu, Caballero bati aspaldiko llaga batetic, asicen zaiola ustelcen, ta cangrenacen bere zangoa: deicendio Medicu, ta Barberari, icusi, ta erregistrecen diote llaga, eta erraten diote Jaune, precisoa da evaquicea zangoa, ta bercela illenda laster, eta erre-medio bague. Enfermo tristea izucenda noticie onequin, ta galdeiten diote Medicu, ta Barverari= Estago berce moduric, ni sendaceco, zangoa evaqui bague? Ez Jaune, erratendiote. Onequin despeicen dire andic; ta Enfermo orrec beala aguincen dio bere pageari= Eraman dezala bi candela Elicera, ta isin dezala San Antonioren aurrean: doiela S(a)n Franciscoco Guardianoaren gana, ta atra dezala onen berce Meza, ta encomen dazala¹⁷ Jangoicoari: bitterean aumentacen zayo gaice, uquicen dio vioza, ta gueldicenda illic. Galdeiten dut, guizon onec ote zeuquen deseoa osoa, ta eguiascoa osasunerena? Ez Jaune. Nola ez? Bada etcitue atraraci eimberce Meza, Oracio, ta devocio? A Jaune! Ori ona cen, bañe falta zizayon medioric principalena, nola den sufricea, ta evaquicea zango usteldue, Milagroen atzean ibilli bague. Au da gurequin guertacen dena : onac dire devocioac, eta estire utcibear, bañe estire asqui gu salvaceco; precisoa da ortas gañera, evaquicea ocasio gaistoa, ta vicioen zangoac, iquestea sufricen, humillecen, obedecicen, mortifiquecen gure apetitu, ta pasioneac, ta guardacea amar Mandamentu Sanduec. Ontan dago eguiasco virtutea, ta devocioa, eta au de salvaceco deseoa, ta Cerureco videa.

[3at.] bay¹⁸ ordia socureco astregunean¹⁹ gastacen dutelaric socuen eta edan excesivoetan, irebisten duten jornale pisque, mantenaceco bearzutena beren familiec, eta guero atracodire serenidade andiereq(ui)n estoquegu, eta nola iruqui bearda, dagonean ezpada guardacen, eta apenas irebisten dute errealbat, estoquete onic, ariquetan socuen galdu artio, eta estarritic pasatu artio, eta cembatenas probeago²⁰, edo necesitetuago orduen sucureco²¹ prontoago, eta alacoegui itenbazayote cargu arracio den bezela, cer guertacenda ichera juan, eta camorrac, eta azqueneco golpeac, eta nor icenenda, cause, eta motivoa desorden aubena, ez berceric beicic errico buruec, edo cargudunec, ceñec deuden obligueturic, eta jurementaturic becatu mortalen azpien celazera, cuidezera eta erremediezera, eta justicie itera guiequin igual, atencio, eta respeto humanoegui *vegiretubague*, *cumpliceo beren obliguecioareq(ui)n*. Hå, au ongi considera balezate errietako buruec, cargu-

17. “encomen dazala” dio, “encomenda zala” idatzi beharrean.

18. Hemendik aurrera testuaren barruan aurkitzen zen papertxo batetik hartzen dugu.

19. “astregunean” eta ez “astegunean”.

20. “probeago” eta ez “pobreago”.

21. Hemen “socureco”, baina paragrafo honen hasieran “socureco”.

dunec, edo justicie, nola berce guisses cumplituco luqueten beren obliguecioequin, bada Jangoycoaren Tribunalen ez sollic emanbeaurte contue, eta satisfaccio beren culpe, eta becatues, bayte bercenas ere, au de, auben faltas, omisiones, descuidos, eta perezas bercec cometichen ditusten culpe, desorden, eta becatuengatic, bada cer errespuesta emandezaque tri-bunale divinoartan, estaquitela, edo auben noticiera estirela hellegacen, estu²² convencicen excuse aubec, bada beroc presente deudenean, cometichenbada desordenbat, camorraren bat, golperenbazuc, edo dicho desonestorenbazuc ez pada justicieric iten, nola inzaquete ausente deudenean berec, eta ezpaute velacen, celacen, eta erregistracen zocoac bearbezela, ezpaute justicie iten atencio, eta errespeto humanos, ó cemba oobeago ice-nenlizeque ez arcea carguec, edo bercela cumplitu beren obliguecioequin, edo berzela erri bacochan nombratu Cargudun perpetuec, vici diren demboraco, cergatic condenatu bear baute, obeago da condenatu deicen bat, edo bi, erri bacochan, ece condenatu deicen guciec²³.

5. TESTUA

Cer¹ signifiquecen otedu, edo cer ematendigu entendacera egungo egunean Bule Sanduerequin eguin dugun ceremonie? Esta berceric, nere Catolicoac², beicic Apostoloen Delegadoac lurrean declaratu cituela, Salvadoreac errancituen itz misericordies beteric zoden aye: *Omnes qui la-borati³, et onerati estis, venite ad me, et ego reficiam vos:* arquicen bazadate cargas, eta trabajus beteric, zatoste Salvadorearen gana, ece emanendice medioac, eta modue atraceco trabajo oyetatic, naidu erran, arquicen zadatenac ya animeren⁴ aldetic, nola gorputzenetic penas, eta trabajus, Salvadoreac alivietuco dice, cergatic Bule Sandueren privilegioac dire aiñ andiec, ece aliviecendu anime, eta gorputce, animeren, eta gorputceren dañuric bague: *Bulla, est diploma Pontificum, quo multae gratiae conceduntur sub onere certae eleemosinae in subsidium belli contra infideles erogatae:* Bule da privilegio generosoat, concedicen baitu Aite Sanduec Espaneco Erreinu, eta⁵ Señorioegui, eta gure Erregueari burue den becela: Errandut generoso, cergatic beite aiñ copioso, eta abundante Indulgencies, aiñ benigno, eta liberal dispensaceco, ece estut arquicen berce terminoric, ceñequin expliquetu deitequen yago Jangoycoaren benignidadea, eta generosidadea Aite Sanduerena. Lendabisco privilegioa, concedicen duena Aite Sanduec bule ar-

22. “estu” eta ez “estute”.

23. Papertxo honen atzeko aldean *Marcos* idatzi dute, kaligrafia ariketak egiten edo. Hitz horretan ageri den -rr- kontsonantea 18. mendean eta 19. mendeko lehen aldian erabilten zena da.

1. Ezker aldeko goiko zokoan 1827 eta 1832.

2. “Catolicoac” eta ez “Catholicoac”.

3. “Laborati” eta ez “laboratis”.

4. “animeren”, baina .gorputzenetic”.

cenduenari, da, ece publiquecenden istentetic bule, Confesoreac apliquetu dezoque urtebaten espacioan penitenteari beiñ vicien, eta berce beiñ erioceco orduen Indulgencie plenarie, eta barcacioa becatu guciena, berenbecatues egoten badire arrepentituric viotzes, eta confesacen batuste agos, eta ezpadenzaquete confesatu, deseacen batuste viotzes confesacea beren becatuec: eta arcen badu penitenteac vi bule Cruzadacoac, apliquetudezoque vi aldis vicien Indulgencie plenarie, eta berce vi aldis erioceco trancean, bañe etzaque yago buleric artu urte artan berean. Bule Sandueren medios ematenzayo penitenteari facultade elegiceco nayduen Confesorea, ya icendayela Secularea, edo Regularea, nonta egondayen aprobaturic Ordinarioan gandic: ceñec absolvitu dezaquen veiñ vicien, eta berce beiñ ilceco puntuen, edoceiñ becatutic: Indulgencie au bera, eta berce privilegio bulerenac, concedicendire joatendirenegui beren costus peleara, Erregue Catholicoac vielcenduen Exercitoan Infielen contra; eta joatendirenegui laguncera personalmente, eta itera berce exercicio, edo oficio piadosoac exercitoan, permanecicen direlaric an urte bates: eta lo mismo beren costus vielcen dutenegui Soldadoac, bulec disponicen duen forman. Concedicen zayote guerra ontaco soldadoegui, au de Infielen contra, esencionea, edo libertadea baruena, aun votos, edo eliceco preceptoes obligueturic bambedode⁶ ere, eta Say egunetan trabajatu dezaqueta⁷ guerraco gaucetan. Noiz irebisten dute Indulgencie au guerra ontara joatendirenac? Conseguicen dute indulgencie au, confesacen diren aldioro urte baten espacioan, exercitoan doden demboran, beren becatuen dolore verdaderoarequin: arracioa da, cergicat indulgencie au dago concedituric absolutamente soldado guciegi, batere limitacione bague. Cer berce indulgencie concedicendu bulec? Arcenduenari concedicen zayo amabotz urte, eta amabotz quarentenaco barcacioa, aimberce aldis nola barutu dayen egun ayetan, ceñetan esten preceptoric, edo obliguecioric, eta juntamente iten badute oracio Jangoycoari victorie gatic infielan contra, eta icendayen baquea Principe Christio gucien ertean: Eta ezpadenzaquete impedimentorem baten gatic barutu, conseguicendute lo mismo, item badute berce obra piadosorembat Confesorearen arbitriora, eta item badute erranduten oracioa: Eta ontas landara, icenendire participante Elice Militantean iten diren obra on gucietan. Lo mismo concedicen zayote bule arcendutenegui Garizumeco egunetan, eta urtean diren berce egunetan, zeñetan Estacioac Erroman, visitecen batuste bortz Elice, edo bortz Aldare, eta ezpada bortz Elice, edo bortz Aldarerik, visitecen batuste Elicebat, edo Aldarebat bortz aldis, eta iten badute an oracio devociorequi unione, eta victoriegatic icendayen Infieles contra, irebisten, eta conseguicen dute Indulgencie guciec, eta barcacioac, nola personalmente visitecen baluquete Erromaco Elice, eta aldamenecoac ere. Estacioco egunec, ceñetan irebisten diren Indulgencie plenarie⁸, dirade Garizumeco guciec, eta berce anitz egun bulec señalacen dituenac: Urtean dituen berce gañeraco egunetan badire Estacioac Erroman, eta irebisten dire Indulgencie, bañe dirade parcialac, eta ez plenariec. *Indul-*

5. *eta* hitza ezabaturik dago eskuidatzian.

6. Laburrik dago: “*baldin* bedode”.

7. “*dezaqueta*” eta ez “*dezaquete*”.

8. “*plenarie*” eta ez “*plenariec*”.

gentia, est remissio poenae temporalis debitae peccatis iam dimisis: Da vi aldetara: Plenarie, eta Parciala: Indulgencia plenaria, est remissio totius [1 at.] poenae temporalis debitae peccatis iam dimissis. Partialis, est remissio alicuyus poenae temporalis debitae peccatis iam dimissis. Indulgencie Plenarie, da barcacio pena temporal guciena becatu barcatuegui correspondicen zayotenegui. Parciala, da barcacio pena temporal batzuena, becatu barcatuegui correspondicen zayotenegui. De suerte ece batec irebastenbadu Indulgencie plenarie, eta ilcenbada berla berce becaturic iñ bague, joanenda aren Anime chusen chusena Cerure, deus trabajuric padecitu bague. Bañe esta orla guertacen Indulgencie parcialarequi, beicic barcacendio pena, edo castigoa cembeit egunetacoa, edo demboracoa, bañe estu barcacen becatu guciena. Concedicendu ere bay bulec Indulgencie plenarie, ilcendenari eriotce repentinoarequi, edo Confesorean ausencien, edo Confesioric bague, non ta ildayen contrito, edo urriqueturic bere becatues, eta nonta estayen icendu perezoso, edo negligente Confesacean, eta Comecacean, Elice Ama Sanduec manecen duenean.

§. TESTUA

Arracio ce cindoacen zu Jaun Divino onen errecibizera; beñe¹ Jaun Divoa, beti becela misericordiosoa, compadecituric zure eritasunes², eta trabajues eldu ceizu Visitecera. Naiduzu errecibitu? B.J.

Orai bearditu confesatu, fede Sanduco Misterio principalenac. B.J.

Siñestacendu dela Jangoicobat gucis poderosoa Ceruen, eta Lurrean, icustendiren, eta icusten eztiren gaunce guciec³ Creadorean baiten? B.J.

Siñestacendu arren Seme bacar Jesu-Christo gure Jaunen baiten? B.J.

Siñestacendu Espiritu Sanduen beiten? B.J.

Siñestacendu Aite, Semea, eta Espiritu Santi Jaune direla iru persona distintioac, eta Jangoico berdadero at? B.J.

Siñestacendu Jesu-Christo gure Jaune guizon becela concebitucela Espiritu Sanduen obras, eta jayocela Maria Santissimen sabeletic, gueldicencelaric Maria Santissime Virgen erdibañolen, erdicean, eta erdi ezquereros? B.J.

Siñestacendu Jesu-Christo gure Jaunec pasatuzuela Passioa, crucifiquetuzutela, eta ilzutela gu, eta mundu gucie salbaceagatic? B.J.

Siñestacendu orzizutela, eta jeichizela Limbora an zauden Animec atracea? B.J.

Siñestacendu ill, eta iruguerren egunean erresuciteturcilla illen artetic, eta iguencela Cerure, eta an dagola jarriric Aite Eternoan escubico aldean, eta etorribearduela Juicioco egunean illen, eta vicien juzguecera? B.J.

1. Eskuidatzian “bene” irakurtzen dugu eta ez “beñe”.

2. Testu honetan letra etzanez ageri direnak, eskuidatzian azpimarraturik daude, azpimarra lerroaren hasieratik hasten dela. Horregatik gerta liteke hitz baten zati bat azpimarraturik egotea eta beste puska ez.

3. “guciec” eta ez “gucien”.

Siñestacendu gucioc erresucitetu beardugule gure gorpuz proprioequi errecibiceco premioa edo castigoa gure obrac meregidut**enbecela?** B.J.

Despues se le da á besar la Santa Cruz, y tomando el Santissimo *Sacramento en las manos se le dice al enfermo.*

Orai falta zayo confesacea Eliceco Sacramentu Sanduec, *ceñen medios salbacembeigara.*

[1at.] Siñestacendu Bautismo, eta berce Sacramentu Sanduen medios, barcacen dizquigule Jangoicoac gure becatuec, eta itengueituela *Ceruco Erederoac?* B.J.

Siñestacendu Jesu-Christo gure Erredentoreac Orzegun Sandu arrasean erranzuen itcen medios, eta edocein Sacerdote ongi ordenaturic dagonac (becatorea, eta indignoa barimbada ere) erraten dituen Consagracioo itcen medios, oguien substancie converticendela Jesu-Christoren gorpuz preciosoa, eta ardoan substancie converticendela Jesu-Christoren odol preciosoa? B.J.

Siñestacendu nic orai escu indigno ontan dauquetenav dela *Jesu-Christoren gorpuz verdaderoa?* B.J.

Barcacio escacendio gure Jaun Divino oni ofendituduen *gauce gucietan?* B.J.

Escacendiote barcacio vere icheco familiari, presente, eta ausente daude-negui por si acaso nor bait ofenditu *badu?* B.J.

LABURPENA

Sei euskal testu berri ematen ditugu hemen. Aldizkari honetan argitaratu genituen beste hamar testurekin eta oraindi argia ikusi ez duten beste askorekin bilduma bat osatzen dute. Goñerrin dagoen Munarritzan izan ziren aurkituak denak orain dela hirurogeitamar urte eta bilduma horretan 4. eta 9. sailak betetzen dituzte. Uste dugunez, 18. mendeko bukaeran edo 19.aren hasieran idatziak dira.

Saiatzen gara azaltzen nor edo zer zen beren idazlea, eta non eta noiz egiñak izan ziren eta zein euskalkitan, horretarako baliatzen garela gramatikak eta hiztegiak esakaintzen dizkiguten argibideez.

RESUMEN

Damos a conocer seis textos inéditos en lengua vasca. Forman ellos parte de una colección de textos, diez de los cuales se ofrecieron en esta revista. Fueron hallados en Munárriz, pueblo del valle navarro de Goñi y merindad de Estella. Constituyen los grupos cuarto y noveno de la colección y pueden pertenecer a los últimos años del siglo 18 o a los primeros del siguiente.

Tratamos en una breve introducción de averiguar el autor de los textos, y el lugar, fecha y dialecto de los mismos. Nos valemos para ello de los datos que ofrecen la gramática y el vocabulario, concluyendo que están escritos en el euskara navarro.

RESUME

Nous présentons six textes inédits en langue basque. Ils font partie d'une collection de textes, dont dix ont été présentés dans cette revue. Ils ont été découverts à Munarriz, village de la vallée navarraise de Goñi; district d'Estella. Ils constituent le quatrième et le neuvième groupe de la collection et peuvent dater des dernières années du XVIII^e siècle ou des premières années du suivant.

Nous tentons dans une brève introduction de déterminer l'auteur des textes, ainsi que le lieu et la date où ils ont été écrits et le dialecte employé. Nous avons recours pour cela aux données fournies par la grammaire et le vocabulaire, et notre conclusion est qu'ils sont écrits en basque de Navarre.

SUMMARY

We publish six documents in the basque language which were unedited so far. They belong to a collection composed of many texts written and used in the 18th and 19th centuries. The collection was found 70 years ago in Munarriz, a village in the High-Navarrese valley called Goñerria. The texts you see here make up the 4th and 9th sets of it.

In a brief introduction, we attempt to know the author by whom they were written and their place and date, and the dialect they are composed in. We analyse the grammatical and lexical data to find out those facts.